

AIARALDEA *hemen*



NATXO SAINZ DE LA FUENTE:
“Ez da bereziki zaila izan Handia filma etalonatzea, baina izan ditu berezitasunak” 15 or.

JULEN IBARROLA:
Adierazpen askatasuna medio espetxeratutako bigarren amurriarra 6-7 or.



Pedro Armestre - Save the children-

Adingabeak iritzi publikoaren jomugan

LAUDIO 2
Mercadonak saltokia irekitzearen aurka azaldu dira hainbat baserritar
Supermerkatu-kateak sortu baino lanpostu gehiago sunsituko dituela uste dute

ARRANKUDIAGA 3
“Data tradizionalak” itzuliko dira aurten Andra Mari jaiak
Jai batzordeko kideek azaldu dute itzulera ez dela behinbetikoa izango

AIARALDEA 14
Bizi eta kontsumitzeko alternatibak plazaratuko dituzte I. Azoka Sozialean
Otsailaren 24 eta 25ean izango da azoka, Laudioko industriaguneko 4-8 pabilioian

KULTURA 16
Zinemagintzako genero zapalkuntzak, lehen planora
Zinema munduan dauden mikromatxismoak kontatu dituzte emakume ekoizleek

KIROLA 19
Lau domina eskuratu ditu Lautxirrinkak Espainia mailako irristaketa proban
Patin klubak urrezko bi domina eta zilarrezko eta brontzezko bana ekarri ditu etxera

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A 2018

FINALAURREKOA

2. OTSAILA 24 LARUNBATA

AMURRIOKO GAZTETXEAN
19:00 PIKOTEOA
19:30 FINALAURREKOA
(SARRERA LIBREA)

BABEKO BERTAREN BILOBAK
VS (ARAMAIO)

BAPATEROAK
(GASTEIZ)

www.bertsozale.eus/araba

Babesle nagusiak

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Vital
FUNDACIÓN - FUNDAZIOA

LABORAL
kutxa

udapa

artepan

ALEA
ARABAKO AIDIZKRIA

herriz herri

Laudio

Mercadonaren saltokiaren aurka azaldu dira hainbat baserritar

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Prentsa-oharra plazaratu dute eskualdeko hainbat baserritarrek -Jon Lekanda, Nuria Moro, Mikel Urkijo, Zaira del Río, Ignacio Lopez, Juan Angel Lekanda, Jose Miguel Atxa eta Iñaki Urkixo- Mercadonak Laudion saltokia irekitzeko dituen asmoen inguruan.

Euren ustez, "epe laburkerian eta demagogian" kokatu da gaiari buruzko eztabaida. "Inork gutxi esan digu, esan nahi ez digutelako, distribuziohandiaren bitartez egiten diren salmenten prezioaren %60 banatzaile handiaren esku gelditzen dela. Hura izanik gainera prozesu osoan gastu gutxien pairatzen



Mercadonako langileek eginiko protesta baten irudia. Bdext

duena", azaldu dute. Horrez gain, baserritarrek azpimarratu duten merkatal zentro handiek "suntsitzen duten enpleguaren erdia" baino ez dutela sortzen, eta eratzen dituzten lanpostuak "oso kalitate gutxikoak" direla.

Udal talde politikoei kritika

Gauzak hala, Laudioako EAJ, PSE-EE, PP eta Talde Mistoaren jarrera salatu dute. "Hau da eskualderako pentsatua duten garapen eredu: gaurko ogi eskasa, biharko prekaritatea eta gosea".

Itxarkundia Dantza Taldeak irakurriko du abuztuko San Roke jaien pregoia

Testua
Aitor Aspuru Saez

Itxarkundia Dantza Taldeak irakurriko du abuztuko jaien pregoia. Izan ere, elkarteak 40 urte beteko ditu aurten.

Taldeko arduraduna den Aitziber Tempranok eta hiru kide gehiagok agerraldia dute Jai Batzordea eta Udala eskertzeko, proposamena egin eta izendapena onartzeagatik. Nola ez, aurreratu dute dantzek protagonismo handia izango dutela irakurketan.

40. urteurrena

Aurten 40 urteko ibilbidea beteko dutenez, Itxarkundia Dantza Taldeko kideek ospakizun egitaraua prestatu dute, eta otsailean zabalduko dute.

"Ia guztia lotu dugu, baina otsailean jakinaraziko ditugu ekintzak, apirilean izango baitira gehienak", aurreratu du Tempranok. Berez, dagoeneko argazkiak jasotzen ari dira erakusketa prestatzeko.

Egun, 150 dantzarik osatzen

dute taldea. 110 inguru umeak eta gazteak dira, eta gainerakoak helduak.

Sortzailearen aztarna

Salustiana Etxeberriak, Salutxuk, sortu zuen taldea 1978an. "Egun, luzea da bere itzala, aspaldi zendu bazen ere". Izan ere, Aldai plaza dagoen lekuan hasi zen euskal dantzak irakasten garai hartan, mojen jolastokia zenean. Gerora Batzokira jo zuten; eta EAJ eta EA zatitu zirenean, Alkartetxera. Azkenean, Kultura Etxean kokatu ziren, eta han jarraitzen dute.

Orain, Itxarkundiako kideek ekin diote ikertzeari taldearen historia. Izan ere, Salutxu erbestean egon zen Iparraldean, Guda Zibilaren ostean; eta Jose Uruñuela musikariarekin harreman estua izan zuen. Berez, musikariak dantza pieza asmatu zuen Salutxu eta bere nebarentzat.

Aurreratu dutenez, sortzailearen omenez emanaldia egingodute Laudioko kiroldegian, abenduan.

20 urteko gazte bat atxilotu dute 9 adingabe sexualki jazartzea egotzita

Sexu delituak egotzita 20 urteko laudioar mutila atxilotu zuen Ertzaintzak urtarrila amaieran. Sexu jazarpena leporatzen diote: "16 urtetik beherakoei sexu delituak egitea". Ertzaintzaren arabera, gaurarte bederatzia ingaberen salaketak jaso dituzte. Eraso moduei dagokienez, sare sozialen bidez jazo direla azaldu du polizia: "Instagrametik jartzen zen harremanetan adingabeekin, eta postura sexualetan argazkiak bidaltzeko eskatzen zien".

Nerabeen gurasoek Aiaraldea Gaur hedabideari jakinarazi diotenez, Whatsappetik ere eskatzen zituen irudiak. Atxilotu ostean Amurrioko epaitegira eraman zuten gaztea, "baina epaitu arte geratuko da aske". Ikerketa oraindik zabalik dago.

Futbol Klubaren oharra

Laudio Futbol Klubak, bere aldetik, oharra plazaratu du gertaerarekin zerikusirik ez duela argi uzteko.

Saratxo

Saihesbidearen proiektuan eginiko aldaketek ez dute ezinegona baretu



Mobilizazio ugari egin dituzte herritarrek proiektuaren aurka. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Urtarrilaren 19an aurkeztu ziren Saratxoko saihesbidearen proiektuarengaineko aldaketak. Moldaketa horien inguruko prentsa ohar bateratua plazaratu dute Saratxo Bizirik plataformak eta herriko Administrazio Batzarrak. Ez daude pozik Arabako Foru Aldundiak planteatutako aldaketa horiekin, ez dutelako "herria asfalto azpian desagertzea" galaraziko.

"Azpiegituren diputatuak adierazi zuen oso pozik

zeudela proiektuaren inguruan lortutako adostasunarekin", azaldu dute saratxoarrek, "baina guri oraindik ez digute proiektua aurkeztu".

"Politikarien maila" agerian geratu dela salatu dute plataformak eta Administrazio Batzarrak: "Proiektuari ekiteko beste modurik ez dagoela sinestarazi nahi izan digute, baina guk aditu ugari kontsultatu ditugu eta badakigu egiteko beste modu bat posible dela". Errepidea "jada existitzen den hiri eta natura ondarera" moldatu beharko litzatekeela uste dute, "ez alderantziz".

Amurrio

Amaitu dute Larrabeko auzoko aparkaleku berria



Belardi batean atondu dute aparkaleku berria. Amurrioko Udala

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aparkaleku berria du Amurrioko Larrabe auzoak, amaitu berri baitituzte gunea egokitzeko obrak. Belardibatean eraiki dute 22 plazako parkinga. "Plazetako bat egokitutakoa

da, auzokideen batzarretan biztanleek egindako eskariari erantzunez", azaldu du udalak.

Argiztapena ere atondu dute: zutabeak eta led argiak jarri dituzte, euri-urak drainatzeko sistemarekin batera. 46.975 euroko aurrekontua baliatu dute guztira.

Arrankudiaga-Zollo

“Data tradizionaletara” itzuliko dira Arrankudiagako Jaiak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Abian dago Andra Mari Jaiak antolatzen dituen batzordea. Duela gutxi deitu zuten bilera, eta 13 lagun bertaratu ziren hitzordura. Hala, festak noiztik nora luzatuko diren adostu zuten.

Gauzak hala, abuztuaren 14an hasiko dira festak, Bezpera-Marmitako Egunarekin. 15ean, aldiz, Andra Mari Eguna izango da, 18an Umeena, 19an Kofradiarena eta 20an, Berakatz Eguna.



2016an hartu zuten antolatzaileek jai-egunak bateratzeko apustua. **Ezkurra**

“Behin behinekoa”

Modu horretan, “data tradizionaletara” itzuliko dira jaiak, duela bi urte bezala.

2016an hartu zuten antolatzaileek jai-egunak bateratzeko apustua, ordura

arteko egutegia aldatuta: “Jai Batzordean herritar batek egin zuen proposamena eta ondo ikusi genuen”.

Erabakiak, baina, polemika sortu zuen sektore batzuen artean, herritar batzuk datak

mantentzearen alde zeudelako. Hala ere, antolatzaileek azaldu dute behin-behinekoa dela data tradizionaletara itzultzearen erabakia: “Aurten data horiek egokiagoak direlako egin dugu hautua”.

Txondorra gaztetxeko behin-behineko lanak bukatu dituzte

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Duela hiru urte ekin zioten Arrankudiaga-Zolloko Txondorra gaztetxearen atonketari eta orain amaitu dituzte behin-behineko obrak. Gazte Asanbladako kideek azaldu dutenez, auzolanean heldu diote erronkari. “San Juan inguruan hasi genituen lanak”, kontatu dute. Igerilekuen eraikin ohia

aukeratu zuten gazteentzako espazioa atontzeko. Geroztik, hainbat hobekuntza egin dizkiote eraikinari: sarbidea, barruko guneen antolaketa... “Herrian ekintza anitzak antolatzeko espazioa eratzea” izan da obraren helburua.

Martxoan ospatu zuten lehendabiziko gazte eguna. Ordutik, asanblada eta ekintza ugari antolatzen dituzte eraikinean bertan.



Goitik behera berritu dute eraikina. **Arrankudiaga-Zolloko Gazte Asanblada**

EDUKI BEREZIA

Market Amurrio, ohiko denda bat baino gehiago izateko aspirazioa duen gunea

Zankueta poligonoko pabiloi batean kokatuko dute Market Amurrio saltokia. Denetariko produktuak topatu ahalko dira bertan, prezio merkean eta 15 eguneko garantiarekin. Martxoaren 1ean irekiko dute establezimendua, eta %10-20ko beherapenak eskainiko dituzte lehen hilabeteen.



Atondu dute dagoeneko denda. **Yuan Chen**

Martxoaren 1ean irekiko ditu ateak Market Amurrio saltokiak. Zankueta poligonon egongo da, gasolindegia aldoan dagoen pabiloi batean. Yuan Chenek kudeatuko du denda, beste hainbat langilerekin batera. Iaztik bizi da Chen Amurrioren, eta eskarmentu handia du merkataritza alorrean. 17 urterekin zabaldu zuen bere lehenbiziko komertzioa bere amaren laguntzarekin, eta orduz geroztik ez dio lan egiteari utzi.

Amurrioko espazioa berezia izango dela azaldu du: “Ez da ohiko bazar bat izango. Korridore eta gune zabalak izango ditu, bezeroak gustura egon daitezten”. Espazio “erosoa” sortzea da Chenen xedea. Denetariko produktuak topatu ahalko dira bertan: arropa, etxerako gauzak, denetariko erramintak, moztarriak, landareak... “Oso katalogo zabala osatu dugu. Orduetegiari dagokionez, astelehenean larunbatera egongo da denda martxan, 9:30etatik 14:00etara eta 16:30etatik 21:00etara”. Lehen hiru egunetan, baina, orduetegi berezia izango du, 9:30etik 21:00etara egongo baita zabalik.

% 20ko beherapenak

Indartsu hasiko du ibilbidea Market Amurriok, eskaintza bereziak izango baititu lehen hilabeteen. Produktu gehienek %10eko beherapena izango dute. Arropa eta oinetakoek, aldiz, %20koa. Horrez gain, Chenek nabarmendu du produktu guztiek 15 eguneko bermea izango dutela. “Erositakoekin gustura ez dagoenari dirua itzuliko diogu, eta norbaitek produktu bera beste toki batean merkeago topatzen badu prezio horretan salduko diogu”. Amaitzeko, dendarako langile bila ari direla gaineratu du Chenek.

MARKET AMURRIO

Zankueta poligonoa, AMURRIO

herriz herri

Artziniega

Zabor tasa igo du udalak, kudeaketa gastuengatik



Iragan asteko udalbatzan onartu zen proposamena. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Artziniegako hainbat zerbitzuren zergak eztabaidatu ziren otsaileko udalbatzan. Zabortasaren igoera onartuegin zen, baina urarena ez, PPK eta EH Bilduk kontra bozkatu baitzuten. Zehazki, zerga bi zentimo garestitzea metro kubikoko izan zen EAJren proposamena.

Zabor bilketaren tarifa, aldiz, bai igo dute. "2021 arte zergak progresiboki haziko

dira", erantsi du Iñigo Gomez Artziniegako alkateak, pleguak berriitu baitituzte. Arrazoiagatik galdetuta, Aiarako Kuadrillako zerbitzu berria aipatu du alkateak: "Horrez gain, Jundizeko zabortegian hondakinen tratamendu tasa handitu du Gasteizko Udalak".

Egun, herritarrek bi kolpetan ordaintzen dute hondakinak jasotzeko zerga: "57.26€ izan da orain arte. Lehen sei hilekoan 33 eurokoa izango da tasa, hots, urtea 66€.

Frontoiko kristalak aldatuko dituzte



Martxan daude Artziniegako frontoiaren egoera hobetzeko lanak. Iñigo Gomez alkatearen hitzetan, ezker paretaren garbiketa egitean ohartu ziren arazoak: "Hainbat kristal leiho -bloke- solte zeuden". Hori dela eta, eremua hesitu dute, obrak bukatu artean. "Kristalak kendu eta azpiegitura indartu dugu. Agian ez zen 10 urtean eroriko, baina badaezpada hartu ditugu neurriak".

Kristalak kendu, perfilatu eta hobeto finkatzea da asmoa. "Kristalezko egitura osoa askatuko dugu, eta pieza guztiak birkokatu". Izan ere, silikona-rekin zeuden lotuta, "eta kasu batzuetan askatu egin da".

Okondo

Herriko ondarea ezagutzeko ibilbideak prestatu dituzte

Testua
Txabi Alvarado Bñares

Oinez egiteko hainbat ibilbide atondu ditu Okondo Udalak, "Okondo ibili" proiektuaren barruan. "Ekimenaren helburua da herritarren artean bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, jarduera fisikoa bultzatuz eta Okondoko ondarea ezagutaraziz eta balioa jarriz", azaldu du Jakue Aranburu Ribado zinegotziak.

Bost ibilbide

Villachica eta Arenalde ezagutzeko parada eskaintzen du egitasmoak, bost ibilbide ezberdinen bitartez. Hainbat luzera eta zailtasun-mailako txangoak dira, eta herriko hainbat txokoesanguratsuetatik pasatzen dira.

Udalak jakinarazi duseinaleak eta azalpenak dituzten panelak jarri dituztela bideetan, oinezkoen orientazioa erraztu



Seinaleetako bat. Okondoko Udala

eta intereseko informazioa emateko.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin elkarlanean aritu da tokiko erakundea egitasmoa aurrera ateratzeko; erdibana finantzatu dute.

Orozko

Tramiteak nola egin jakiteko gidaliburua, klik batera

Testua
Txabi Alvarado Bñares

Gidaliburua plazaratu du Orozkoko Udalak. Herritarrei informazioa eskaintzeko udalean kudeatzen diren tramite eta prozedurak ditu ardatz egitasmoak. Udalaren webgunean eskuratu daiteke argitalpena -www.ozkoudala.

com-, hainbat dokumenturekin batera: tramiteak, beharrezko dokumentazioa, kudeaketarako tokia, kostua edo horiei lotutako arautegia, beste batzuen artean.

Hizkuntzari dagokionez, gaztelaniazko bertsioa abian dago jada. Euskarazkoa, aldiz, hurrengo asteetan egongo da eskuragai, tokiko erakundearen arabera.

Urduña

Udalarekin harreman estuagoa, Hirix aplikazioaren bidez

Testua
Txabi Alvarado Bñares

Mugikorrerako Hirix aplikazioa erabiltzen hasi da Urduñako Udala, auzokideekin harreman estuago bat mantentzea helburu. Hiritarren eta tokiko erakundearen arteko hartu-emana ahalbideratzen du tresnak. Hala, bizila-

gunek eskura izango dute udalaren informazio guztia: agenda deialdiak, azken orduko oharrak, albisteak, hiritarren arretarako zerbitzua... Horrez gain, kexa edo intzidentzien berri emateko aukera ematen du Hirixek, modu erraz eta dinamiko batean.

Aplikazioa doakoa da eta App-pleren dendatik edota Google

Play-tik jaitsi daiteke. Udalak jakinarazi du bere langileak tresna horren erabileran trebatu dituela.

Kultur eta kirol elkarteek eta merkatariek ere erabili ahaliko dute baliabide berri hori, euren informazio propioa plazaratu edota hiritarren eskaerak jasotzeko.

JAR EZAZU ZURE IRAGARKIA *hemen*

*Komunikazio kanpaina bat martxan jarri nahi duzu?
Zure produktu, zerbitzu edo ekitaldiak iragarri nahi dituzu?*

*idatzi publizitatea@aiaraldea.eus helbidera
edo deitu 688 625 394 zenbakira*



Eskualdean zabalpen handiena duen komunikabidea

2 astean behin 10.000 ale banatzen dira Aiaraldea osoan (Amurrio, Atziniega, Urduña, Audio, Okondo, Aiara, Orozko, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo)

iritzia

Errealitate gordina

Urtero bezala, ikasle askorentzat heldu da praktikak hasteko ordua. Praktikak lan munduarekin lehenengo harremanak izateko aukera dira, esperientzia irabazteko "modurik egokiena". Enpresek lan mundura sartzeko posibilitatea bermatzen digute, baina zeren truk? Horra hor gako!

Esan bezala, praktikek enpresa batean lan egiteko aukera ematen digute, beste langile bat izango bagina bezala, baina errealitate gordina ez da hori. Alde batetik, ez gaude gure lankideen maila berean. Hau da, gure esperientziaren beharraz aprobetxatzen dira, eta beraiek egin nahi ez dituzten lanak laga ohi dizkigute. Are gehiago, gehienetan ez dituzte gure iritziak eta proposamenak kontuan hartzen; eta, azkenean, haien txotxongiloak bihurtzen gara, nahi dituzten erara mugitzen dituzten ahotsik gabeko panpinak. Bestalde, oso garrantzitsua da kontuan hartzea praktikek irauten duten bitartean ikasleok langileek adina ordu sartzen ditugula enpresan, baina kobratu gabe. Hau da, praktikak egitean, bigarren maila batean jokatzeko dugu, enpresak nahi duen erara erabiltzen gaitu, etorkizunean izan nahi dituen langileak sortzen ditu haien gustuko formakuntza inposatuz, eta ez dizkigu beste langile guztiek dituzten eskubideak bermatzen, ez dagoelako lan harremanik.

Hau guztia horrela izanik, praktikak egitea derrigorrezkoa da zikloa gainditzeko eta horregatik askotan, praktikak onak ala txarrak izan arren, isilik egiten ditugu, gure ikasketak amaituko ez ditugunaren beldurrez. Askotan ez dugu txintik ere esan nahi gure etorkizuna jokoan dugulako; eta, gizartean maiz gertatzen den bezala, ematen digutenarekin aurrera egiten dugu, gustatzen ez bazaigu ere.



SAIOA PORRES

Lanbide Heziketako ikaslea



AITOR ARANBARRI

Lanbide Heziketako irakaslea

Arroz alea

Lantokiko Prestakuntza, lanbide heziketaren ezaugarri nagusia da, lan merkatuaren eta ikaslearen arteko zubia. Nire iritziz oso ikasgai aberasgarria da ikasleentzat, klasean ikasitako materiaren arlo praktikoa aurkitzeaz gain pertsona gisa beraien autonomia lantzen dutelako. Askorentzat lehen kontratu bat lortzeko aukera ere bada. Adibidez pasa den kurtsoan Lantoki Prestakuntza egin zuten ikasleen heren batek lehen kontratu bat lortu zuten lantegi berean, eta beste %25ek beste toki batean praktikak bukatzerakoan.

Lantokientzat ere positiboa dela uste dut, etorkizunean beharko dituzten langileen formazioan parte hartu dezaketelako. Oraindik lan asko dago egiteke, kasu askotan lantegiek ez dute langile berririk hartzen, hariak eta dituzten langileak erretiratu arte. Gero etortzen dira arazoak, langile berriak ez dira %100ean aurreko langileen funtzioak betetzeko gai lehen egunetik, eta horrek produktibitatean dauka eragina. Azken urte hauetan joera hau aldatzen ari den arren, asko aurreratu beharko da lanpostu duinak mantentzeko. Azkenik, Aiaraldeko etorkizuna bermatu nahi badugu, derrigorrezkoa izan beharko da ikasleek, lantegiek, ikastetxeek eta gainontzeko eragileek batera lan egitea. Lantokiko Prestakuntzak bere arroz alea jartzen du paella erraldoi honetan, baina guztion esku dago kuzinatzea.

“Praktikek enpresa batean lan egiteko aukera ematen digute beste langile bat izango bagina bezala, baina errealitate gordina ez da hori”

“Aiaraldeko etorkizuna bermatu nahi badugu, derrigorrezkoa izango da ikasleek, lantegiek, ikastetxeek eta gainontzeko eragileek batera lan egitea”



GALDERA

Praktikak egitea beharrezkoa dela uste duzu?



Asier

Mekatronika industrial

Praktikek ez dute ikaslearen benetako formakuntza bermatzen. Beste langile guztiek egiten duten lana egitean datza sarritan, egoera prekarioetan, baina soldatarik kobratu gabe.



Garazi

Arreta zerbitzuak

Nik Erasmus bidez egingo ditut praktikak eta horrek asko motibatzen nau, kultura eta herrialde berri bat ezagutuko ditudalako. Praktikak derrigorrez izan beharko liritezke ordainduak.



Joseba

Mekanizazioa


Bai, baina modulan egindakoa egiten badugu, askotan bestelako lanak egiten baitira, 8 orduz eta kobratu gabe. Musutruk egitea gaizki dago, ikastetxeak enpresari dirua ematen diolako gainera.



Sandra

Mantentze lanak

Gratu bat ikasten dugunon interes nagusienetako bat ikasketak amaitu ostean lana aurkitzea da. Beraz, praktikak ezinbestekoak iruditzen zaizkit horretarako.



Aimar Gutierrez

Aimar 2018

analisia

Alfredo Ramirez “@erreharria”, Aitor Martinez, Galder Barbado, Beñat Ereño, Juanjo Basterra... adierazpen askatasuna eta terrorismoa nahasten dituzten atxiloketak, zigorrak, epaiketak eta espetxealdiak ugaritu dira azkenaldian eskualdean. Julen Ibarrola gazte amurriarrarena izan da jazo den azken kasua: urtebeteko kartzelazigorra ezarri dio Entzutegi Nazionalak errotuladore batekin pintaketa egiteagatik.

Adierazpen askatasunaren soka eskualdeko gazteen lepoetan estu



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Gazte baten aurpegia, jende ugari bera babesten eta inguratzen Amurrioko San Anton plazan, adierazpen askatasuna eta herri mugimenduan parte hartzea aldarrikatzen dituzten adierazpenak... Duela gutxi ikusi ditugu irudi horiek, eta ezagunak zaizkigu; errepikakorrak, agian. Ez dira telebista edo film batean agertzen, errealtate gertuan baizik. Azaroaren 4an Alfredo Ramirez amurriarra espetxeratu zuten presoan aurpegiak zituzten panpinak erakusteagatik eta twitterren aritzeagatik. Igandean, berriz, Julen Ibarrola Amurrioko gaztea sartu zuten kartzelan terrorismoa goratzea leporatuta, errotuladorez pintaketa egiteagatik.

Azken urteotan adierazpen askatasunaren mugak gero eta gehiago murriztu dira, estatuaren eta zenbait lobbyren obsesioa areagotu den neurri berean. Umorean eta adierazpen askatasunaren eztabaida bizirik dagoen bitartean, ematen du geroz eta arruntagoa bilakatu dela jendea espetxera joatea euren iritzi politikoen ondorioz.

Borroka baten gudu zelai

2014tik hona ugaritu egin da iritziak adierazteagatik edota pintaketak eta pankartak direla medio legearekin arazoak izan dituzten aiaraldearren kopurua. Badirudi eskualdea borroka baten gudu zelai bilakatu dela, eta bidean biktima nahikotxo geratu dira. Esan bezala, Alfredo Ramirez Basauriko espetxean dago urtebeteko zigorra betetzen; igandean geroztik beste amurriar batekin topo egin du ziegan, Julen Ibarrolarekin, hain zuzen.

Hala ere, eurakez ezik, Aitor Martinez eta @xboeguileor txioliariak ere atxilotu zituen Guardia Zibilak Laudion eta Amurrioko “Armiarma” operazioaren barruan, sare sozialetan terrorismoa goraipatzeagatik; 2014an eta 2016an, hurrenez hurren. Martinezen akusazioek



Jada hiru hilabete preso daramatzen Alfredo Ramirezekin batu da Julen Ibarrola Basauriko espetxean. Zuzeu.eus

aurrera egin ez bazuten ere, berriro izan zuten fiskaltzaren eta Entzutegi Nazionalaren berri 2017an. Bera eta Beñat Ereño epaituak eta absolutuak izan ziren pintaketak egiteagatik.

Amurrioko Galder Barbado ere gauza beragatik epaitu zuten 2016an. Horrez gain, urte berean, ustez pankarta bat marrazteagatik atxilotu zuen Guardia Zibilak. Horiei gehitu behar zaie Juanjo Basterra kazetariaren kasua, Dignidad y Justicia elkarteak salatuzuen preso politiko bati buruzko txio bat idazteagatik. Azkenean, akusazioa ezean geratu zen.

Gauzak horrela, badirudi poli-ziaren, fiskaltzaren, epaitegien eta lobbyen jomugan dagoela bailara. Halaber, egoera orokorrari erreparatu behar zaio ohartzeko ez dela Aiaraldeko arazoa soilik.

Egoera orokortua

PPk Espainiako estatuan ge-

hiengo osoa eskuratu zuenetik -2012tik- ahalegin berezia egin du zenbait adierazpen mota jazartzeko. Mezu matxistak, arrazistak eta faxistak sare sozialetan askatasun osoz zabaltzen diren bitartean, bestelako iritziei jarraipen zorrotza egiten die estatuak, terrorismoaren aurkako legeak baliatuta. Horrela, zigor ugari ezarri dituzte azken urteotan Carrero Blanco militar frankistari buruzko txantxak egiteagatik, edota abestietan zenbait nahi eta iritzi plazaratzeagatik. Zerrenda luze horretan Cassandra txiolaria, Cesar Strawberry abeslaria eta hainbat rap abeslari daude: Valtonyc, Pablo Hassel edota La Insurgencia taldeko 12 kideak, esaterako.

Erljioaren kasuan gauza bera gertatzen ari da: atzo jakin genuen Espainiako epaile batek gazte bat zigortu duela Jaenen Kristori buruzko txantxa egiteagatik (bere aurpegia jarri zuten erreferente katolikoaren orde); eta hurbilago,

2014tik hona zortzi kasu egon dira Aiaraldean. Badirudi eskualdea borroka baten gudu zelai bilakatu dela, eta bidean biktima nahikotxo geratu dira

Bilbon, Hontzak konpartaren dekorazioa kendu zuten Ertzaintzak Bilboko Jaietan akusazio bera baliatuta; sinismen erlijiosoak iraintzea, alegia.

Hori gutxi balitz, aintzat hartu beharra dago indarrean jarraitzen duela euskal gazteria independentistaren aurkako salbuespeneko legeak, ETAk jardun armatua duela ia zazpi urte utzi zuten arren.

Tresna horiek erabilia, Altsa-suko gazte talde batek 50 urteko kartzela zigor eskaerari egin beharko dio aurre aurten taberna borroka dela kausa. Dagoeneko horietako hiruk urtebete baino gehiago bete dute espetxean. Beste leku batzuetan -Espainiar Estatuko hainbat herritan- gertakari bera isunaren bitartez konpontzen den bitartean, Euskal Herrian gorroto delituarekin lotu dute gaueko ordu txikitaz jotako iskanbila eta, dudarik gabe, epaiketaren berri izango dugu hilabete gutxiren buruan.

elkarrizketa

“Lasai eta indartsu joan naiz kartzelara, badakit herri osoa dudala atzean”



JULEN IBARROLA PEREZ (Amurrio, 1993) URTEBETEKO KARTZELA ZIGORRA EZARRI DIO ESPAINIAKO AUZITEGI NAZIONALAK, ERROTULKI BATEKIN PINTAKETA BAT EGITEAGATIK. IGANDEAN SARTU ZEN KARTZELAN.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**
Argazkia **Jon Catalan López**

Errotulki batekin egindako margoketa bat dela-eta espexeratu zaituzte. Zelan zaude?

Ba beno, zer esango dizuet! Urtebete eman beharko dut kartzelan, espexean hamarkadak daramatzaten euskal herritar ezberdinekin alderatuta, gaitzerdi.

Terrorismoa goratzea leporatzen dizute...

Bai, terrorismoa Euskal Herrian gazte mugimenduan parte hartzea da, ikastetxean hezkuntza herriko eta euskaldun baten alde lan egitea, greba orokorretan piketeetan parte hartzea...

Ezin da gutxiago espero Audientzia Nazionala bezalako salbuespeneko auzitegi batengandik. Herrien askatasunaren aurka lanean egoteko sortua izan zen 1977an, Franko hilda zegoela, baina oso ondo lotua utzi zuen.

Negargarria da 2018an oraindik ere frankismoaren ADN duen auzitegi batekin euskal herritarrak epaitzen eta zigortzen jarraitzea... Hemendik Auzitegi Nazionalari esan nahiko nioke aski dela, garaia dela disolbatu eta armak entregatzeko.

Zein izan da epaia atera arteko kasuaren ibilbidea?

Duela 3 urte edo hasi zen prozedura: errotulki batekin margoketak egiteagatik auziperatu nindutenean. Auzitegi Nazionalan deklaratu eta epaitu ostean, urtebeteko kartzela zigorrarekin kondenatu naute.

Aurretik ere Auzitegi Nazionalan egona naiz Amurrioko beste gazte batekin, margoketak egiteagatik

inputatu gintuzten orduan ere, baina absolbitu egin gintuzten. Gure aurkako froga bakarra Laudioko komisaldegian ezagunak ginela izan zen.

Gaztetxearen okupazioagatik ere kondenatu zintuzten, ezta?

Bai. Horren aurretik Amurrioko Gazte Asanbladako hainbat kide zigortu gintuzten “Landazuri” gaztetxearen okupazioagatik; hori hartu dute gainera nire zigorra ez suspenditzeko aitzakia modura... Tamalez ohituak gaude Euskal Herriko gazteok holako egoerak egunerokotasunean jasatera.

“Julen Libre!” plataformaren arabera, herri mugimenduetan aritzeagatik kartzelaratu nahi zaituzte.

Bai, argi eta garbi dago erabaki judizial honen atzean erabaki politiko bat dagoela eta erabaki politiko hori militantzia politikoa zigortzea dela. Zenbat ustelkeri kasu ikusten ditugu egunero telebistan? Zenbat eraso sexista jasaten dituzte emakumeek egunero? Zenbat lan erailketa daude urtero Euskal Herrian? Zenbat jende bizi da kalean eta errekurtsorik gabe gure herrietan? Zenbat lagun utzi dituzte banketxeek etxerik gabe eta kalegorrian? Zenbat gazte daude muturreko egoeretan bizitzen, edo modu oso prekario batean lan egiten soldata miserable baten truke? Non daude honen erantzuleak? Kartzelan? Ez, jakina. Guzti horiek kartzelan egotetik urrun daude, eta saritu egiten dituzte gainera.

Nik badakit zergatik noan kartzelara, eta oso harro nago egindako lanaz; ez nintzateke hain harro egongo kalean egon eta aurreko galdera guztien erantzulea izango banintz...

Elkartasun keinu ugari jaso dituzu herritar eta eragileen aldetik...

Bai. Egia esan, sekulako indarra ematen dit elkartasun uholde honek, momentu baxuenetan egindako lanaren berrespenera narama. Lasai eta indartsu joan naiz kartzelara, badakit herri osoa dudala atzean, horrek emango die min gehien. Eskerrak eman nahi dizkiet niri elkartasuna helarazi didaten guztiei, plataforman egunero lanean daudenei eta lagunei; lan handia egiten ari dira eta oso eskertzekoa da.

Zein da, zure ustez, atxiloaldiarekin bilatzen duten helburua?

Helburuak argiak dira: alde batetik, datozen gazte belaunaldiei beldurra zainetaraino sartzea; ez konprometitzea, indibidualistak eta sumisoak izatea. Eta, bestetik, urteetan zehar herriko gazte mugimenduan egindako lana zigortzea. Inozoa izan behar da ni kartzelan sartzeagatik hau lortuko dutela pentsatzeko...

Zein mezu nahiko zenuke zabaldu?

Lanean jarraitzea. Badakigu Espainian jarraitzen dugun bitartean holakoak gertatuko zaizkigula behin eta berriz. Nirea ez da kasualitatea ezta kasu isolatu bat ere, guzti hau estatu faxista baten katearen katebegi bat soilik da. Presoen egoera larria, pentsioen erreformak, hezkuntzaren pribatizazioa, gazteriaren prekarizazioa, 155. artikulua... hori da Espainiar estatua, ez gaitzezen engaina. Guzti honi buelta emateko dugun tresna bakarra prozesu independentista bururaino eraman eta Euskal Herriaren bakea eta askatasuna eskuratzea izango da, horretarako edukiko ditugun zailtasun eta oztopo guztiekin, jakina.

erreportajea

Adingabeen zentroak histeriaren zentroan



Adingabe atzeritarrak dira iritzi publikoaren mikroskopioaren azpian daudenak, bereziki. **Jose Palazón**

Azken hilabeteetan adintxikikoak jarri dituzte hedabideen eta sare sozialen erdigunean. Santo Tomaseko eta Otxarkoagako gertakariak pizgarriak izan badira ere, zurrumurru ugari

zabalduta dira eskualdean horien aurretik, Urduñako Adingabeentzako Zentroa dela eta, batik bat. Bertako gazteen eta herritarren arteko talkek kezka sortu dute eskualdean.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Beldur bat somatzen da egun hauetan gizartearen: adingabeena. Eta denak klasearekin eta arrazarekin zerikusia duenez, adingabe atzeritarrak dira mikroskopioaren azpian daudenak, bereziki. Eskualdean bistakoa izan da egoera Urduñako zentroan daudenekin.

Sare sozialetan hainbat mezu zabalduta dira "arriskuaz" ohartarazten, baina gutxitan aipatu da zein den euren egoera. Izan ere, zer espero du jendarteak adingabe horiez? Eta zer nolako bitartekoak daude helburu horiek betetzeko?

Urduñako zentroa, gainezka

Teoriak esaten digu Bizkaiko Foru Aldundiaren betebeharra dela bermatzea adingabeen ongizatea eta bizitza duina, ez eskuzabaltasunagatik, Nazioarteko Legediak eta hitzarmenek hala esatendutela kobazik. "Adingabeek

eskubideak dituzte, edozein estatutan egonda ere", azaldu du Mikel Bilbao artziniegarrak. Berak Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren elkartasun karabanan parte hartu zuen udan.

Bidaia horretan Melillan egon zen, eta aurrez aurre izan zuen gazte magrebtarren egoera: "200 toki dauden zentroetan 600 adin txikiko sartzen dituzte. Oheak daude nonahi eta partekatu behar dituzte. Hezitzaile gutxi daude eta, adibidez, itzultzaile bakarra dute. Jasanezina da. Edonola ere, erdigunean jarri behar da zaintzaren prekarizazioa gazte horien bizi baldintzak ulertzeko. Zentroak pribatizatzen dituztenez Espainian, bitartekoak gero eta urriagoak dira".

Bizkaian pribatuak ez badira ere, nolakoak dira zentroak? Urduñako Adingabeentzako Zentroa ireki zuten udan. Bizkaian guraso edo seniderik gabeko gazte etorkinak 480 inguru ziren 2017an eta foru azpiegiturak ez ziren nahikoak. Horren ondorioz, Urduñan daukan

eraikin bat baliatu zuen aldundiak.

Zentroan ibilitako langile batek ez du argazki oso itxaropentsua egiten bertako egoerari buruz: "Zornotzako aterpea erre zenean 64 gazte zeuden Urduñan, eta 28 gehiago heldu ziren. 6 hezitzaile zeuden txanda bakoitzeko eta bitartekoak ez ziren neurri berean indartu, bi edo hiru gehiago etorri ziren".

Horrela, ordea, hezitzaileek ez dute gazteekin lan egiteko paradarik: "ez dago denborarik adingabeak gizarteratzeko, gehiegi dira, ez dago modurik bakoitzari jarraipena egiteko".

Gauzak hala, pilotuta eta erreferente barik, giroa ez da batere aproposa: "adin eta jatorri oso ezberdinetako umeak daude elkarrekin leku berean eta indarkeria oso ohikoa da. Ume txikienek gogortu behar izaten dute nagusiekin egon eta bizirauteko. Jakina, eguneroko harremanetan agintzen duen biolentzia hori islatzen da zentrotik ateratzen direnean".

Urduñako zentroko adingabeei behar bezalako arreta eskaintzeko baliabide nahikorik ez dagoela diote hezitzaileek

Horren aurrean, bi gako azaleratzen dira. Alde batetik, adingabeen zentroetan hazi den Sefao Ammari gazteak nabarmentzen duena: oso zaila dela adingabeak gizarte berrira egokitzea baldin eta jatorriaren arabera elkartzen badituzte. Hori dela eta, aparteko kolektiboa sortzeak ez dirudi integrazio bide onena denik.

Bestalde, adingabeen inguruko begirada ere oso garrantzitsua da. Izan ere, bistakoa da euskal gizarte gero eta zaharkituagoa dagoela eta hemen jaiotakook ez dugula pentsioen sistema mantenduko. Hala ere, askok uste dute kanpotik etortzen diren gazteekin bitartekoak xahutzen direla, karidade ariketa bailitza, bizilagun horiek gizarte bera jasagarri egiteko aukera bezala ikusi beharrean.

Ammarik argi dio: "Lan egiten dut, eta zergen bidez itzultzen ari naiz nigan inbertitu zuten dirua". Hori bai, aurretik errekurtsioak jarri ezean, ez da etorkizunik egongo

gazte horientzat.

18 urterekin, kalera

Berez, asko aipatzen da adingabeen aferan, baina zer gertatzen da 18 urte betetzen dituztenean? Bilbon lan egiten duen hezitzaile batek azaldu digu: "18 urterekin kalera doaz". Hezitzaileak ibilbide arruntena deskribatu du: "Urduñanez dutenez aukerarik lan prekariorik egiteko: txatarra jasotzeko edo publizitatea banatzeko, esaterako, hiriburuetara jotzen dute. Gasteizen, Donostian edo Bilbon gero eta gazte gehiago ari dira kalean bizitzen, abandonatutako eraikinetan".

Egia da 3 hilabeteko harremana erakutsiz gero hiriarekin, aterpe batean lo egiteko parada izan dezaketela, baina leku horiek ere gainezka daude eta, oro har, ez dago plazarik. Hezitzaileak nabarmendu du egoera ez dela salbuespena: gizarte zerbitzuak kolapsatuta daude.

18 urte betetzen dituzten gazteak zentrotik joan behar izaten dira eta asko dira kalean biziraun behar izaten dutenak

Erronka konplexua

Aurreiritzi idilikoetatik at, argi dago kulturartekotasuna ez dela bide samurra eta erraza. *Kosmopolitismo Manu-Chaozaleak* itsututa daudenak kenduta, edonork sumatu dezake erronka konplexua dela. Hala ere, XXI. mendean kulturartekotasuna ez da aukera bat: euskalgizartean hainbat komunitate daude eta elkarbizitza errealitatea da, ona edo txarra izan.

Halaber, nazioarteko migrazioa fenomeno berria bada ere, ez da, inondik inora, ezezaguna. Gogora dezagun Aiaraldea industriagunea bilakatu zenean, kanpoko hainbat jende etorri zela hona -nire aitona- amona batzuk, adibidez-. Horrek talka sortu zuen, "maketo" edo "coreano" bezalako hitzak arrunt bilakatu.

Ibilbide gogorra izan bazen ere eta nagusien artean zenbait orbain guztiz itxi ez diren arren, egun etorkin horien seme-alabak eta bilobak ezin gara ezberdindu gainerako herritarren artean. Dudarik gabe, hurrengo helburua da 50 urte barru gauza bera ez esatea egungo etorkinei buruz.

IRITZI-GUTUNA

Ezin egina, ezinegon

Urduñako adingabeen zentroko hezitzaile ohi eta ekintzaile feminista batek bertako bizipenak eta aferarekiko bere ikuspegia plazaratu ditu hedabidera igorritako iritzi gutunean.

Sarri entzuten ditugu kaleetatik pertsona migratuen inguruko zurrumurru asko, nahiz eta gehienetan gure bizilagunez ari garen. "Etorkin" kontzeptua nahiko nuke mahaigaineratu, eta ariketa pertsonal batera eraman: Zer datorkigu burura "etorkin" kontzeptuan pentsatzen dugunean? Perfil oso espezifiko bat agertuko zaigu askotan, guk geure buruari ukatzen dioguna: arrazakeria.

Nik ere perspektiba zuritik idazten dut, hau da, erabili ez ezik, disfrutatzen ditudan pribilegio estrukturalak baliatzen naiz bizi naizen bezala bizi ahal izateko. Hausnarketa hau publikatzea pribilegio horietako bat izan daiteke: ikusgarritasunarena.

Jendartearen egituraketa estrukturala gorputzen ezaugarri espezifiko batzuen arabera zapalkuntzan oinarritzen da: generoa, arraza, klasea, identitate sexuala, aniztasun funtzionala, etab. Ez dugu autobus heterofobo bat ikusiko, gizona ez da jantzi duenagatik bortxatua izango, diruduna ez da ikasteko aukerarik gabe geratuko eta zuria ez dute denda batean jarraituko lapurra delakoan. Pribilegioa ez da existitzen pribilegio gabekorik ez badago, eta gure ezaugarriek gorputzen dute indarkeria estrukturala. Zuria

izateak klase pribilegiatuan jartzen gaitu jendartearen; eta, koloreagatik, egunerokoak erronkalatzago bihurtzen dira sustraietatik urrun daudenentzat; askorentzat, erronka ez ezik, ezinezko.

Gaur egungo Aiaraldeko errealitatera etorrita, Zornotzako eta Urduñako "bakarrik dauden adingabe atzerritarren" (BDAA) harrera baliabideetan emandako gorabeherak alarma piztu dute gure artean ere. Hurbiletik bizi ahal izan dudana errealitatea da hau, eta herrian eman diren egoerek nahastuta utzi didate gorputza azkenaldian.

Bizkaiko diru laguntzak beste autonomia erkidegoetakoak baino altuagoak dira, eta hau da nerabe askorentzat hona etortzearen arrazoia. Hala, bat-batean hainbeste nerabe harreratzeko behararen erantzun gisa, diru laguntza horiek murriztearen kontrako eskatzen du egoerak. Askok dira hona bizimodu ezberdin baten bila etorri nahi izan duten gazteak, eta, oraingoz, gurean ez dago hainbeste neraberi espazio seguruan bizitzeko eskubidea eskaintzeko baliabiderik. Bizi baldintza duina ziurtatzeko etxe gehiago behar dira, hezitzaile gehiago, kalitatezko esku hartzea eta zaintza erdigunean jartzen

duen politika.

Beste galdera bat daukat jendarteratzeko: hainbeste aldatuko litzateke egoera, amazigh-arrak, marokoarrak, ginearrak, algeriarrak ez ezik, gure eskualdeko 60 mutil nerabe izango balira 30 pertsonarentzako lekua duen herritik kanpoko etxe batean bizi direnak, egoera emozional oso zailean eta sentipenen sostengua lanez gainezka dauden hezitzaileen esku?

Indarkeriak indarkeria dakar; ezinegonak ezinegonak dakar. "Bakarrik dauden adingabe atzerritarren" kolektiboaren barruan ez dago emakumerik, eta, gure herrietan ere gertatzen den bezala, genero pribilegioek indarkeriaren kultura sostengatzen dute. Indarkeria ez dago gure kaleetatik kanpo, eta erasoan aurrean autodefentsa feministarako deia egiten dut, dudarik gabe; baina, Brigitte Vasallok dioen bezala, indarkeriaren eta erasoan atentzioa kolorean, jatorrian, klasean edo erlijioan jartzeak ez du errealitate gordina besterik ikusarazten: biolentzia eta emakumeenganako indarkeria sistemikoak direla, eta sistema dela aldatu behar dena. Osorik. Baina honek ez digu graziarik egiten, gure pribilegioetan eroso ere bagaudelako.



Gazte askok kalean bizi behar dute, 18 urte betetzen dituztenean. **Jose Palazón**

elkarrizketa

“Haurtzarotik marjimatzen dituzte adingabeen zentroetan dauden nerabeak”

SEFAO AMMARIK (Maroko, 1989) DUELA 10 URTE GURUTZATU ZUEN AUTOBUS BATEN AZPIAN MAROKO ETA ESPAINIA ARTEKO MUGA, BIZIMODU HOBE BATEN BILA. ADINGABEEN ZENTRO BATEAN BIZI IZAN ZEN 18 URTE BETE ARTE. EGUN, OROZKOKO FABRIKA BATEAN EGITEN DU LAN.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**
Argazkia **Nora Latatu Landaluze**

Duela 10 urte etorri zinen Marokotik Euskal Herrira. Zergatik erabaki zenuen zure sorterritik joatea?

Bertan ez zegoelako etorkizunik, bizitza ez da ona han. Europara etortzea zen irtenbide bakarra. Nire anaiak urte batzuk zeramatzen Bilbon bizitzen, horregatik erabaki nuen Euskal Herrira etortzea.

Anaia izan zen pausoa ematera animatu zintuena?

Ez, nire anaiak beti nahi izan zuen nik ikasketak Marokon egitea, ez ninduen bultzatu hona etortzera. Berak bazuen esperientzia hemen, bazekien hemengo bizimodua ez zela Marokon kontatzen zena bezalakoa, gogorra zela zure guraso eta senideak atzean uztea eta beste kultura eta herrialde batean murgiltzea... baina, hala eta guztiz ere, Afrika iparraldera joatea erabaki nuen, muga zeharkatzeko asmoarekin.

Zaila egin zitzaizun muga zeharkatzea? Zer nolako saiakerak egin zenituen?

Denetarik ikusi dezakezu mugan zaudenean. Jendea hiltzen ikusi dezakezu, hona iristeko saiakeran. Pertsona batzuk erori egiten dira kamioien azpian ezkutatuta daudenean... Badaude baita ere pateretan sartzen saiatzen direnak, baina horietako asko ez dira euren helmugara iristen. Itsasotik etortzen saiatzen den pertsona askoren

arrastoa galdu egiten da; senideek ez dakite bizirik dauden edo ez. Nire herri albotik patera bat abiatu zen Espainiara, eta gaur da eguna zeinetan ez dakigun zer gertatu zen bertan zioazenekin.

Horregatik baztertu zenuen itsasoko aukera?

Bai, niri itsasoak beti eman dit beldurra, eta badaude hona etortzeko beste modu batzuk. Kamioien azpian sartzen saiatu nintzen.

Azkenean autobus baten azpian ezkutatuta etorri nintzen, hainbat saiakera egin ondoren. Poliziek askotan harrapatu ninduten. Jipoitu egiten zaituzte... Denetarik egiten dizute, baina aurrera egiten duzu, gauza bakarra duzulako buruan: muga zeharkatzea.

Zenbat saiakera egin zenituen?

Asko, ia egunero ahalegintzen nintzen. Badago dirua duen jendea, ordaindu egiten duena muga zeharkatzeko.

Mafiek laguntza eskaintzen dute horretarako?

Azkenaldian entzun dut badaudela mafia batzuk Espainia hegoaldeetik Bilboraino iristen laguntzeko. Hori ez da nire kasua izan, eta ez dut hona modu horretan etorri den inor ezagutzen. Mafiak mugetan daude. Dirua baduzu ordaintzen duzu, eta listo.

Muga gurutzatuta Alcegirasera iritsi zinen. Nola etorri zinen Bilbora?

Marokoar batekin egin nuen topo, nire egoera kontatu nion eta bidaia ordaintzen lagundu zidan. Nire anaiak ez zekien non nengoan, ez zuen nire berri izan Bilbora iritsi nintzen arte.

Noiz jarri zinen harremanetan berarekin?

Behin adingabeen zentroan nengoela.

Nola iritsi zinen zentrorra?

Indautxuko udaltzaingoaren komisariara joan nintzen, eta Amorebietako adingabeen zentrorra eraman ninduten. 14 egun igaro nituen bertan, beste toki batera bideratu ninduten arte.

Nora joan zinen?

Artzentaleseko zentrorra, gaur egun itxita dago. “Adingabeen zentro” bat zen, kaketan artean. Baso baten barruan zegoen. Espainiera apur bat ikasten genuen, baina hori baino ez.

Nolakoa zen bertako bizimodua?

Oso zaila. Ez geneukan ez jolasteko ez ikasteko betarik. Basoa baino ez zegoen.

Espazio arazoak zenituzten?

Amorebietan arazoak egoten dira batzuetan, baina urteko garaiaren arabera da hori. Oroitzen dut ni egon nintzenean ez zegoela lekurik, bakoitzak ahal zuen tokian

elkarrizketa



“Poliziek denetarik egiten zidaten... baina aurrera jarraitu nuen, helburu bakarra nuelako buruan: muga zeharkatzea”

egiten zuen lo. Kontuan izan behar dugu gune horietan dauden pertsonak adingabeak direla, eta haurtzarotik marjinatzen dituztela, lehen unetik nabarmenduaz ez direla gainontzeko haurrak bezalakoak. Adingabea zara eta baso baten erdian zaude... ez da Marokotik joatean espero zenuena. Ez zaizkit inoiz gustatu horrelako zentroak.

Nolakoak izan beharko lirateke?

Horretan pentsatu behar dugu, adingabe horiek integratzean. Ez da berdina 25-30 urteko pertsona bat edo 15 urteko nerabe bat bertako bihurtzea.

Nik, adibidez, ez dut uste Marokora itzuliko naizenik, bizitza erdia igaro dudalako hemen. Nire gurasoak bisitatzera baino ez naiz joaten sorterrira. Horregatik, adingabe bat 15 urterekin badator, garrantzitsua da 28 urte dituenean -nire adina- hemengoa sentitzea, bestela ez duelako nongoa den jakingo. Horretan pentsatu beharra dago.

Ez lirateke zentroak jatorriaren arabera bereizi beharko, gazte guztiak nahasten ahalegindu beharko ginateke, hori da integratze modu bakarra. Nola integratuko da nerabe bat bere jatorri eta erlijio bereko gazteekin soilik egotera bultzatzen badute? Oso zaila da.

Adingabeen zentroetan dauden nerabeak gatazkatsuek direla zabaldu da Aiaraldean. Mezuak hedatu dituzte sare sozialen bidez, Amorebietako adingabeen zentroko sutea eragin zuten gazteak Urduñara eraman dituztela esanez.

Nire ustez, Amorebietako sutea eragin zuen gazteak zigorra jaso behar du, baina ez dute nerabe guztiak ordaindu behar berak eginikoa. Zergatik zabaldu da zentro horretako nerabe guztiak gaizkileak direla sutea pertsona bakarrak eragin zuenean eta gainera atxilotua izan denean?

Euskal Herrira etorri den jendea ez da gustuz etorri. Bere jatorrizko herrialdean gaizki pasatzen ari delako eta bizitza berri baten bila dagoelako daude hemen, eta horietako asko oso pertsona onak dira.

“Oso zaila da adingabeen zentro batean bizitzea, ezin duzu ez jolastu ez eta ikasi”

Egia da gazte gatazkatsuek daudela. Baina inork ez du galdetzen, adibidez, zergatik drogatzen diren nerabe horiek? Zergatik hartzen dituzte drogak? Nork saltzen dizkie?

Norbanakoak epaitzearen aldekoa naiz ni, ez kolektiboak. Batek lapurtzeak ez du esan nahi gainontzekoek ere hala egiten dutenik. Horren adibide da Otxarkoagako kasua. Sare sozialetan irakurtzen duzu magrebtarrak direla gertatutakoaren erantzuleak... eta ez da hilketen arrazoiengatik inguruan hitz egiten, hiltzaileen jatorria zein den jakitea bilakatzen delako garrantzitsua. Pertsona batek ez du jatorri bat ordezkatzeko.

Pentsatu beharko litzateke ere zer sentitzen duen komunitate magrebtarrak horrelako mezuak entzuten dituenean. Ez dut esan nahi euskaldun guztiak horrela pentsatzen dutenik, ez da horrela, lur abegikor batean bizi baikara. Baina komunikazio-sare askotan onartu egiten dira horrelako gorroto-mezuak.

Zuri ere iristen zaizkizu horrelako mezuak?

Bai, lagun euskaldunak ditut, eta erakutsi egiten dizkide. Gaiaz hitz egiten dugu batzuetan, eta ni bezala pentsatzen dute: ezin dela gertaera bat egiten duenaren jatorriaren arabera baloratu.

18 urte betetzean utzi zenuen zentroa.

Beste borroka bat hasi zen orduan. Bilbon utzi ninduten, Guggenheim alboan, aterpe batean hiru egun igarotzeko. Hortik aurrera nire kasa moldatu behar izan nintzen. Horrelakoa izan zen nire kasua, eta baita beste pertsona askorena ere. Baina aurrera egitea lortu nuen, Hemen elkarteari eta Peñascalekin kooperatibari esker. Bi erakunde horiek ez diote laguntza edonori ematen, merituak egin behar dituzu euren programetan parte hartu eta pisu batean sartu ahal izateko. Hemen-eko kideek eginiko lana nabarmendu nahiko nuke, euren esker gazte askok lortu dute aurrera jarraitzea. Peñascalekin ikastaro bat egin nuen eta lanean hasi nintzen.

Orain Orozkon egiten duzu lan.

Basaurin bizi naiz, baina Orozkoko fabrika batean nabil kontratu mugagabearekin; eta zergak ordaintzen ditut, beste edozein herritarrek bezala. Marokoko herri berdineko 26 lagun gaude Bilbo inguruan. Soilik hiru daude langabezia, 12 autonomo gisa dabilta, eta gainontzekoak nire antzerako lanetan. Nire kasuan, uste dut zergen bidez itzultzen ari naizela adingabea nintzenean nigan inbertitu zuten dirua.

2018/02/14
2017/02/27



Willis Drummond eta beste 11 talde igoko dira Burubioko oholtzara

Jon Iraundegi

Otsaileko eta martxoako musika eskaintza plazaratu du Amurrioko Burubio kultur elkarteak eta izen handiko taldeak egongo dira, Willis Drummond kasu. Otsaila agenda aldetik bete samar datorrela eta, hilarren erdialdetik aurrera pilatu dituzte emanaldiak.

Otsailaren 17an Skunk D.F eta Sealed Room taldeek joko dute, protagonismo berezia emango diete, hortaz.

Martxoak 16 izango da izen entzutetsuenak bilduko dituen eguna, Willis Drummond eta Mockers bertaratuko baitira.

Martxoaren 3an, berriz, Yo no las conozco taldeak joko du, Las Sexpeares-ekin batera. Iazko ildoari jarraiki, emakumeei

tira, 11:00etan hasita. Etxaurren Ikastola Herri Lasterketa egingo da baita ere. Bi zirkuitu baliatuko dira korrikaldiak egiteko, kilometro batekoa lehena eta 500 metrokoa bigarrena.

Izena egunean bertan eman ahalko da, 10:30etatik aurrera. Sei lasterketa egingo dira guztien artean.

Datorren igandean -otsailak 18- egingo da Etxaurren Krosaren XVIII. edizioa. Adin guztietako haur eta helduek izango dute aukera Guraso Elkarteak antolatzen duen kirol-jarduerara horretan parte hartzeko.

Sei lasterketa egingo dira guztien artean.

Sei lasterketa egingo dira guztien artean.

Sei lasterketa egingo dira guztien artean.

Sei lasterketa egingo dira guztien artean.

Sei lasterketa egingo dira guztien artean.

Errefuxiatu kurdu bat gonbidatuko du Gure Esku Dagok



Bi hitzaldi antolatuko ditu Laudio-ko Gure Esku Dagok, maiatzaren 6an eskualdeko hainbat herritan egingo den herri kontsulta bultzatzeari begira. "Munduko emakumeei" buruzkoa izango da lehenena. Maryam Fathi ekintzaile eta errefuxiatu kurduak eskainiko du otsailaren 23an 19:00etan, Erabilera antzeko udal aretoan.

Bigarren zita hilaren 26an izango da 18:30ean, toki berean. "Duintasunez hiltzeko eskubidea" elkarteko kideak bertaratuko dira, bi-zi-testamentua zertan datzan azaltzera.

Burrumba, ASSM eta DJ Ruba Kintoen jaiko oholtzan

Junkal Apodaka



Musikak erabateko protagonismoa izango du ostiral honean -otsailak 16- Amurrioren osteko Kintoen jaian. Burrumba elektrotxorangaren kalerarekin hasiko da festa, eta goizeko ordu txikiatararte luzatuko da, Aiaraldeko Soinu Sistemaren eta DJ Rubaren eskutik.

KIROLA

02.17 Larumbata
7:00 AUDIO
IRTEERA VALDEZCARAYRA
ESKIATZEKO
Izena aurretik eman behar da 607 673 744 telefonoan
Herrigunea

02.18 Igandea
10:30 ZUHATZA
ETXAURREN KROSA
Ibaguen

02.20 Asteartea
13:00 ARTZINIEGA
ESKIATZEKO IRTEERA
VALDEZCARAYRA
Izena emateko azken eguna
Udaletxea

UMEENTZAKO EKINTZAK

02.15 Osteguna
18:00 LUJAONDO
UMEENTZAKO BIHOTZ-
BIKETAKO BIZKORTZE
IKASTAROA
Otueta gizarte etxea

02.17 Larumbata
17:30 ARETA
SORGIN ZAPATUAK
"Organic" antzeziana
Aretako Kultura etxea

02.21 Astearkena
17:30 ARTZINIEGA
IPUJIN KONTAKETA
"Monky" eta "El niño semilla"
Udal liburutegia

TAILERRAK

02.16 Ostirala
17:00 AUDIO
BARRE EGIN HOBETO
BIZITZEKO
Pánico Escénico taldearen
eskutik
Kultura etxea

02.17 Larumbata
10:00 URDUÑA
BRIKOLAJE TAILERRA
EMAKUMENTZAT
Alondegia

MUSIKA

02.15 Osteguna
21:00 AUDIO
RED BUTLER
Blues talde ingelesa
Sorgin taberna

02.16 Ostirala
20:00 AMURRIO
KINTOEN JAIA
Burrumba + Aiaraldeko Soinu
Sistema + DJ Ruba
Juan Urrutia plaza

02.17 Larumbata
20:00 AUDIO
MANKAOS
Disko berriaren aurkezpena
La Meca taberna

02.17 Larumbata
20:30 AUDIO
LOS PECES DEL NERVIÓN
Tolo taberna

02.17 Larumbata
22:30 AMURRIO
SKUNK D.F. + SEALED ROOM
-aurretik erosita 10-
Burubio kultur elkarte

02.18 Igandea
19:00 AUDIO
SAN ROKE MUSIKA
ELKARTEAREN ROCK
KONTZERTUA
San Pedro eliza

02.19 Astelehena
17:00 AUDIO
MURILLOREN JAIOTZATIK
400 URTE
Susana Arechagaren eskutik
Kultura etxea

02.21 Asteartea
17:00 AUDIO
NOLA HITZ EGIN HOBETO
PUBLIKOAREN AURREAN
Kepa Murua Idazlea
Kultura etxea

02.23 Ostirala
19:00 AUDIO
MUNDUKO EMAKUMEA
GIZARTE BERRIRAKO
Maryam Fathi ekintzaile eta
errefuxiatu kurduaren eskutik
Erabilera antzeko udal aretoa



Kartelera



LAUDIOALDE
ARETOA

Paterson

Otsailak 17,
LARUNBATA
Sarrera: 2 euro

17:30 / 20:00



DONIBANE
ARETOA

Haitzulotar

Otsailak 18,
IGANDEA Sarrera: Helduek 4
euro eta 12 urtetik beherakoek
2 euro.

16:30



AMURRIO ANTZOKIA

El gran

showman

Otsailak 18 eta 19
IGANDEA ETA ASTELEHENA
4,8 eta 3,7 euro

19:30 / 20:00



LAUDIOALDE
ARETOA

50 sombras

liberadas

Otsailak
23, 24, 25, 26

Sarrera: 5 euro 20:30 / 22:15
/ 20:00 / 20:30

Hezkuntza kapitalista

Ikasle Jardunaldiak antolatatu ditu Ikasle Abertzaleak otsailaren 17rako. Bi hitzaldi eskainiko dituzte Lauzioko Kultur etxean: Bigarren Hezkuntzak sistema kapitalistan duen funtzioari buruzkoa bata eta martxoaren 3ko sarraskiaren ingurukoak bestea. Gauean kontzertuak egongo dira gaztetxean.



DONIBANE
ARETOA

Tres anuncios a las afueras

Otsailak 18,
IGANDEA

Sarrera: 4 euro
19:00



LAUDIOALDE
ARETOA

El cuaderno de Sara

Otsailak 16, 17, 18, 19

Sarrera: 5 euro 20:30 / 22:15 /
17:30 eta 20:00 / 20:30



LAUDIOALDE
ARETOA

The disaster artist

Otsailak 24,
LARUNBATA

Sarrera: 3 euro
17:30 / 20:00



TXONDORRA
GAZTETXEA

It

Otsailak 25,
IGANDEA

Doan
18:00

02.19

Astelehena

15:00 LAUDIO
**TALDE LANERAKO
COACHING TREBETASUNAK**
Lehen saloa. Informazio
gehiago 944 034 980
telefonoan
Tokiko Garapen Agentzia

02.19

Astelehena

18:30 ARRANKUDIAGA
**EUSKAL DANTZA
IKASTAROA**
Txondorra Gaztetxea

BESTEAK

02.15

Osteguna

17:00 LAUDIO
ASANBLADA
Aiaraldeko ikasleok martxan!
Gaztetxea

02.15

Osteguna

18:00 LAUDIO
EMAKUMEEN* ASANBLADA
Greba feminista antolatzeko
Kultura etxea

02.15

Osteguna

19:00 ARESPALDITZA
**GURE ESKU DAGOREN
BILERA IREKIA**
Udaletxea

02.15

Osteguna

19:00 IZORIA
**HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRAREN
AURKEZPENA**
Gizarte etxea

02.16

Ostirala

19:00 LANTENO
**HIRI ANTOLAMENDURAKO
PLAN OROKORRAREN
AURKEZPENA**
Gizarte etxea

02.17

Larumbata

20:00 LAUDIO
IKASLE JARDUNALDIAK
17:00 // Bigarren
hezkuntzaren funtziok
sistema kapitalistan
18:30 // M3 - Gasteluzko
sarraskiaren inguruko
hitzaldia
20:00 // Trikipotea herritik
21:30 // Afari merendola
22:30 // Kontzertuak:
Odoikiak + Ziakhus + DJ
Mendo + Paolo Martini
Laudioko Gaztetxea /
Kultura Etxea

02.20

Astearte

19:00 LAUDIO
**ELKARTE MIKOLOGIKOAREN
BATZAR OROKORRA**
Kultura etxea

02.22

Osteguna

18:30 URDUÑA
IRAKURKETA KLUBA
Udal liburutegia

INFO +
aiaraldea.eus

ANTZERKIA

02.16

Ostirala

19:00 / 20:00 LAUDIO
TAKOIDUN ZAPATA GORRIA
Sarrera: 3 euro
Lamuza parkeko Kasinoa

02.17

Larumbata

20:00 AMURRIO
**SHEREZADE Y LAS CAPAS
DE CEBOLLA**
Sarrera: 10 euro
-barrakideek 8-
Amurrio Antzokia

02.18

Igandea

17:30 AMURRIO
JON BRAUN
Sarrera: 4 euro
4 urtetik gorakoentzat
Amurrio Antzokia

HITZALDIAK

02.16

Ostirala

18:30 LAUDIO
**ZURRUMURRUEN AURKAKO
ESTRATEGIAK**
Kultura etxea

02.16

Ostirala

19:00 LAUDIO
**MUSIKA ETA KOMIKIA 80KO
HAMARKADAN**
Kultura etxea

02.17

Larumbata

19:00 ARTZINIEGA
BASAMORTU SOLIDARIOAK
Carlos Gutierrez
Artziniaga Museoa

erreportajea

“Aiaraldeko I. Azoka Soziala” aurkeztu du Ekintzen Faktoriak



Laudioko industriagunean kokatutako pabilioian egingo dute azoka. Aiaraldea.eus



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Indartsu hasiko du Aiaraldea Ekintzen Faktoriak bere ibilbidea. Aurkeztu du dagoeneko Laudioko industriaguneko 4-8 pabilioian egingo duen lehen ekintza publikoa: Aiaraldeko I. Azoka Soziala. Otsailaren 24 eta 25ean egingo da zita, eta bizitza zein kontsumo alternatibak izango ditu hizpide, mota horretako proiektuak sustatu eta garatu nahi baititu Faktoriak aurrerantzean.

Egitarau anitz eta oparoa prestatu dute otsaileko azken astebururako. Larunbatean ekologikoan tokiko ekoizleen eta proiektu eraldatzaileen azoka egingo dute. Aurkezpen maratonia ere prestatu dute, bizitzako hainbat esparrutan eragiten duten egitasmoak ezagutzera emateko: moneta sozialak, etxebizitza komunitarioak, energia berriztagarriak, eskola jantokiak, banku eta kreditu entitate etikoak... Makina bat ekimenen berri izateko parada egongo da, eskualdean antzeko proiektuak garatzeko inspirazio iturri izan daitezten.

Moneta propioa

Tokiko eta garaiko produktuak ekoizleen eskuetatik zuzenean eskuratzeko aukera egongo da

larunbateko azokan. Salerosketak, baina, ez dira euroen bidez gauzatuko. Txanpon propioa izango du azokak: “Aikoa”. Moneta sozial berezia izango da, euroarekin trukatzeko, pertsona bakoitzak “aiko” kopuru ezberdina jasoko duelako: errenta baxuena duten herritarrek jasoko dute txanpon gehien, egunerokoan ematen diren ezberdintasun ekonomikoak arintzeko.

Bazkalostean dokumental proiektzioak eta mahai-ingurua izango dira nagusi. Iluntzean amaituko da jardunaldia, eskualdeko hainbat musikariren saio

Moneta sozial propioa izango du azokak: “Aikoa”

inprobisatuarekin.

Truke azoka, igandean

Igandean, aldiz, truke azoka atonduko dute Faktorian. “Kontsumo eta truke eredu ezberdinak probatzea izango da egitasmoaren xedea”, azaldu du azokaren antolakuntzan murgildua dagoen Garrastatxu Landaluzek. Parte hartu nahi duen orok aurretik

eman beharko du izena, “eramaten diren objektuakegoera onean egotea izango da baldintza bakarra”.

Landaluzeren hitzetan, hiru moduegongo diratrukerako. “Truke-zuzena” izango da horietako bat: bi pertsonak gauzak elkarren artean partekatzea, alegia. Eskaintza “monetarizatzea” izango da bigarren aurkera, “aiko” txanpona baliatuta. Horrez gain, “truke-librerako” gunea eratuko dute: “Objektu bat utzita beste bat hartzeko aukera egongo da txoko horretan”.

Umek ere parte hartu ahal izango dute ekimenean, beste haur batzuekin edota helduekin euren konpartituta. “Haurrak guztiz libreki jardutea da helburua, euren irizpide propioen arabera jokatzeko utziz”, erantsi du Landaluzek. Dinamika batzuk egingo dituzte horri begira, “euren menpekotasuna txikiagotzeko”.

Antolatzaileek nabarmendu dute gauza “ez-materialak” ere aldatu daitezkeela azokan. “Zerbitzuak eskaini ahal izango dira, norbanakoen artean denbora trukatzeko alegia”, azaldu du Ane Agirrek. Ekimenak harrera ona izango duelakoan dago: “Herrik herrigabiltza eragile eta norbanakoei azokaren nondik norakoak aurkezten, eta nabari da horrelako egitasmoekiko interesa dagoela eskualdean”.

30 eragile eta ekoizle bakoitzak parte hartuko dute azokan:

REAS EUSKADI / OLATUKOOP + TALAIOS / KOOP FABRIKA / BATURA / KOOP57 / FIARE / IZARKOM / GOIENER / BERRITZU / EKXIA / LA BORDA KOOP / HIRITIK AT / TRUCAREC / FELIX PIKATZA / OLGETA / BERTAKOIA / INDARTUZ / JANGURIE / VSF-JUSTIZIA ALIMENTARIA / LAUDIONEGIN / ARRAULTZAK, SALDA: OILOBIDE / OILASKOAK: OLETA / OGIA: MÓNICA ETA EDORTA / MERMELADAK ETA ZUKUAK: TOLOGORRI / KONTSERBAK: ALBERTO CAMPO / EZTIA: IÑIGO MACIAS / PASTA: LAU HAIZE / GAZTA + TXAKOLINA: IKER ULIBARRI / TALO EKOLOGIKOAK: JULÉN HERNÁNDEZ / IZA OKINDEGIA / JON LEKANDA / TXEMI ATXA / ZAIRA NEGUTEGIA

Egitaraua

24.02 Larunbata

10:30 // Azokaren irekiera ekitaldia

HAURRENTZAKO JARDUERAK

10:30-14:00 // **Tailer eta jolasak** haurren espazioan

10:45-14:00 // **Txef txikien topaketa** azokako ekoizleen lehengai ekologikoekin, 4-12 urte bitarteko haurrei zuzendua (izena aurretik eman behar da)

11:30 // **Ogi tailerra** labe mugikorrean eta hamaiketako

PROIEKTU ERALDATZAILEEN AURKEZPENAK:

11:00 // **Moneta sozialak**

11:15 // **Koop57** -Finantza etiko eta solidarioa-

11:30 // **Fiare** -Banku etikoa-

11:45 // **Koop Fabrika** -Ekonomia sozial berria eta ekintzailetasun soziala sustatzeko programa-

12:00 // **Ekoizleen aurkezpenak**

12:15 // **Goienar** -Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba-

12:30 // **Izarkom** -Euskal Herriko Telekomunikazio Operadore Kooperatiboa-

12:45 // **La Borda** -Sants auzoko (BCN) etxebizitza kooperatiba-

13:00 // Oretako gazteentzako **etxebizitza komunitarioak**

13:15 // **Olgeta** -Haur zein helduentzako jolaserako baliabide zerbitzua-

13:30 // **Ekoizleen aurkezpenak**

13:45 // **Bertokoa indartuz**

-Larrabetzuko hondakin organikoak konpostatzeko proiektua-

14:00 // **Jangurie**, Urdaibaiko eskola jantokiaren ekimena

14:15 // **“Dame veneno”**

kanpainaren aurkezpena

14:30 // Azokako **Clowndorioak**

15:00 // **Bazkaria**

HAURRENTZAKO JARDUERAK:

16:00 // **Tailer eta jolasak** haurrentzako espazioan

17:00 // **Askaria**

17:30 // **Ipuin kontalaria**

16:30 // **“Urduña, etorkizunera bueltan II. parte”** dokumentalaren estreinaldia

17:00 // **Mahai-inguru irekia:** Beñat Irasuegi / Miren Prieto / Amaia Oleaga

19:00 // **Kontzertu inprobisatua**

25.02 Igandea

09:30-10:30 // **Truke postuen antolaketa** (parte hartzeko izena eman beharra dago)

10:30-15:00 // **Truke merkatuaren irekiera**, espazioen eta denbora trukeko dinamikaren azalpena

10:00 // **Haurren jolasgunearen irekiera**

10:00 // **Garagardo tailerra**

10:30 // **Truke oparien jolasa** -Izena aurretik eman beharko da-

11:30 // **Arropa birziklapen tailerra**

12:30 // **Egurrezko jostailuen tailerra** haurrentzat, Felix Pikatzarekin

13:30 // **Energia berriztagarriak sortzeko tailerra**, haurrentzat

15:00 // Truke Egunaren amaiera

+ info Aiaraldea.eus webgunean



Kultura



NATXO SAINZ DE LA FUENTE (Urduña, 1963)

ETALONATZAILE LANAK EGIN DITU *HANDIA* FILMAN. GOYA SARIEN GALAN EGON ZEN.



Testua
Txabi Alvarado Bañares

Goya sariengala egon zinen larunbatean. Zer moduz?

Oso ondo, negarrez egon nintzen lehen minututik, oso hunkigarria izan zen. 13 izendapen genituen, eta hamar aldiz izan gara sarituak.

Aurretik egona zinen Goya sariengala banaketan?

Bai, duela bi urte Loreak filmarekin, pelikula onenaren kategorian izendatua baitzegoen. Horrez gain, nire enpresak -Irusoin- Goya bat irabazi zuen duela 17 urte, *Karramarro Uhartea* filmagatik.

Etalonatzailea zara. Zertan datza lan hori?

Irudiari azken ukituak ematean datza. Dena dela, ez dut etalonatzaile gisa soilik jarduten. Irusoin enpresan lan egiten dut, Bilbon. Zine-zerbitzuak eskaintzen ditugu, grabaketaren osteko lanak gauzatzeko. Irudia lantzen dugu batez ere. Grabatutako material guztia gorde eta ordenatzen dugu. Kopia batzuk egiten dira muntatzaileei pasatzeko. Eurak filmaren zuzendariarekin aritzen dira pelikula muntatzen, eta guri pasatzen digute gero. Hor hasten da nire lana. Madrilgo User T38 enpresarekin elkarlanean egon gara, bertan egin baitituzte pelikulan azaltzen diren efektu berezi konplexuenak. Pelikula XIX. mendean girotua dago eta, horregatik, planoetan agertzen

ziren anakronismoak ezabatu behar izan dituzte; elektrizitate kableak, kasu. Nik egin ditut pelikularen efektu bereziekin erlacionatutako gauza txiki batzuk, baina gehienak Madrilgo enpresa horrek gauzatu ditu. Hori guztia egin ostean hasten da etalonatze prozesua, amaieran. Koloreak moldatzen ditugu, planoz plano. Javier Agirrerekin batera egiten dugu lan postprodukzio aretoan. Berari eman diote argazki zuzendari onenaren Goya saria.

Zurea zer da, lan tekniko edo sormenezkoa?

Sormen-lan handia egin dezakezu, askatasun handia dago. Eszenari intentsitate kendu nahi badiogu kolore hotzetara jotzen dugu, argi-contrasteak sortu ditzakegu... zure irizpideak eta argazki zuzendariarenak aintzat hartuta lan egiten da. Filmaren zuzendariak ere bertaratzen dira batzuetan, lanaren jarraipena egiteko. Filma guztiz amaitzea da gure helburua. Kredituak, grafismoak eta audioa gehitzen dizkiogu eta kopia bat egiten dugu, pantaila handian proiektatzeko.

Golem zinemetara joaten gara, areto bat alokatzen dugu eta filma proiektatzen dugu, hainbat aldiz. Zuzenketak egiten ditugu gero, ez delako berdina irudia telebista-pantaila batean edo gainazal zuri batean islatua ikustea. Hori da nire lana.

Urte asko daramazu ikus-entzunezkoetan lan egiten. Nola bilakatu zinen etalonatzaile?

1983. urtean sartu nintzen K2000 ekoiztetxean. Soinuaren alorrean hasi nintzen, baina berehala igaro nintzen irudia lantzerako, postprodukzioan lan egitea baitzen nire asmoa, eta horretan dihardut gaur egun.

Hiru urte egon nintzen ETBn errealizadore gisa lan egiten. Promoziozko bideoak egiten nituen batez ere. Horren ostean pasa nintzen Irusoinen lan egitera. Filmak ekoizten hasi ginen, animaziozkoak hasieran, eta hezur haragizkoak gero.

Duela hamar urte hasi ziren zineman proiektatzeko haina kalitate zuten kamara digitalak fabrikatzen. Orduan egin zuen Irusoinen postprodukzio osoa bere gain hartzearen apustua, pelikulak amaitzeko Madrilgo laborategiaren batekin kontaktu ordez. Etalonatzeko makina bat eskuratu genuen, eta ni sartu nintzen hori maneiatzera. Madrilen ikastaroak egin, bideoak ikusi eta liburu ugari irakurri behar izan nituen, eta lanari ekin nion. Bost filmetan aritu naiz.

Euskarazko zinemaren loraldi bat ematen ari dela uste duzu?


Ezingo dugu inoiz film amerikarren aurka lehiatu. Zinema komertzial espainiarraren atzetik gaude oraindik. Guk egiten duguna gutxiengo bati zuzendutako zinema da: polita eta beste modu batean ikustekoa. Ikuspegi tekniko batetik, Euskadin egiten den zinema Estatu Espainiarreko beste edozein txokotan egiten denarekin alderatu daiteke; frogatua dago jada kalitate handia duela.

Filmak

Bost film etalotatu ditu Natxo Sainz De La Fuentek:
URTE BERRI ON AMONA (2011)
LOREAK (2014)



UN OTOÑO SIN BERLIN (2015)
ACANTILADO (2016)
ORBITA 9 (2017)
HANDIA (2017)



kultura

Emakumeek zinemagintzan bizi dituzten zapalkuntzak, lehen planora

Azken hilabeteetan zeresan handia eman dute zapigarren artean diharduten emakumeek pairatzen dituzten zapalkuntzek. Presentzia handia izan du gaiak Urrezko Globoen edota Goya sarien banaketetan. Zinemagintzaren alorrean, mikromatxismoen lekuko izan dira hainbat aiaraldeer, besteak beste, Esti Urresola zinemagilea, Leyre Berrocal aktorea eta Sonia Pacios ekoizlea.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Lehen planora igaro dira zinemagintzan lan egiten duten emakumeek pairatzen dituzten zapalkuntzak. Iragan urrian erori zen lehen domino fitxa, hainbat emakumek Harvey Weinsteinekoizleezagunakeginiko sexu-erasoak salatu zituztenean.

Erreakzio-kate luzea eragin zuen gertaerak: zinemagintza munduko beste hainbat gizonetako entzutetsuren jazarpen kasuak azaleratu dira #MeTooekinaren bidez; eta lehen lerroa eraman dira emakumeek zapigarren artean munduan bizi ditzuten bestelako zapalkuntza batzuk: soldata txikiagoa jasotzea, kasu.

Urrezko Globoen sari-banaketan zeresan handia izan zuen gaiak, eta badirudi presentzia nabarmena izango duela martxoaren 4an egingo den Oscarren galan ere.

Estatu Espainiarrean ere hasi dira fitxak mugitzen: Duela bi aste aurkeztu zen "Pandoraren kutxa"



Leyre Berrocal Expósito

Aktorea

“Pertsonaia mota gehiago antzezteko aukera izan behar dugu”

izenekoekimena 3.000 emakume baino gehiago biltzen ditu egitasmoak eta kultura munduko sexu erasoak mahaigaineratzea du helburu.

“Mundu osoan bizi dugu

antzeko egoera, kontzientzia gehiago hartzen ari gara”. Hala uste du Leyre Berrocalek. “Erasotu eta mespretxatu gaituzte, baita gizonetako ere”, salatu du aktore amurriorak.

“Emakumeekiko diskriminazioa dago, baina ez nuke jakingo esaten zergatik”, erantsi du Sonia Paciosek, “ez dut nahi zapalkuntza hori existitzea eta egongo ez balitz bezala jokatzeko saiatzen naiz, askotan sumindu egiten naizen arren”. Horregatik, emakumeekiko “diskriminazio positiboa” beharrezkoa dela adierazi die ekoizle aiaraldearrak, “berdintasunean bizitzera iritsi gaituzten noizbait, harresi guztiak behingoz eraitsita”.

Bizipenak

Oso gaztea zela hasi zen Esti Urresola zinema munduan dauden desorekak nabaritzen. “Karrera amaitu berri nuen eta Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartearen -Ibaia- sartu nintzen idazkari moduan lan egitera”, oroitu du zinemagile audioarrak, “Ekoiztetxeguztietako ordezkariak biltzen ziren hor, 50 urtetik gorako gizonetako guztiak”.

Lan bat egitea eskatu zioten behin: Zinema lege berriaren eta aurrekoaren alderaketa egitea; “oso lan xehea eta sakona”. Zuzendaritza batzordera joan zen txostena aurkeztera. “Ésta ha echo un informe...” esan zuten, ez zidaten ezta nire izenagatik deitu”. Urresolak umorea baliatu zuen egoerari buelta emateko: “Para llamarme ésta llamame Esti” esan nien”.

Urte batzuk beranduago jazotako beste bizipen bat kontatu du audioarrak. “Teaser bat -filma bat iragartzeko bideoa- egitea eskatu zidaten”, oroitu du, “gidoia pasatu zidatenean ileak puntan jarri zitzaizkidan. Emakume batekin txortan egin nahi zuten gazte batzuen istorioa zuen ardatz. Sexu-tortura batzuk planteatzen ziren irudi horietan, salmentarako erabiliko ziren, inolako lezio moralik eskaintzen ez zuten irudi



“Pandoraren kutxa” taldea aurkeztu zuten iragan astean Madrilan. La Caja de Pandora

batzuetan”. Zuzendariarekin bildu zen orduan Urresola, eta proiektuarekiko zituen kezak jakinarazi zizkion. “Berakerantzun zidan nire lanbidean zirujau baten zehaztasunarekin lan egiteko unea helduko zitzaidala noizbait, eta nire kontzientziarekin nituen gatazka horiek gaintitu beharko nituela. Ez ninduen inoiz bestelarik egiteko deitu”. Soldata ezberdintasuna ere



Esti Urresola Solaguren

Zinemagilea

“Emakumezkoak ‘emakumeen zinema’ egiteko soilik balio dugula dirudi, eta ez da hala”

aitatu du Urresolak: “Behin nire lanpostu berean zegoen gizonetako bati galdetu nion ea zenbat kobratzen zuen, nire soldatarekin alderatzeko. Ez zen batere eroso sentitu, ez zidan informazioa eman”.

Aurrerapausoak

Hala ere, aurrerapausoak ematen ari dira, Paciosen arabera. “Geroz eta emakume gehiago daude historikoki gizonetako emakumeekin zereginak betetzen, zuzendaritza edo argazkiarduradun postuetan, adibidez”.

Hala ere, emakumezkoentzako “protagonista-paper” gehiago behar dira, Berrocalen aburuz. “Pertsonaia gehiago antzezteko aukera izan behar dugu, adin guztietakoak, edertasuna ez delako 40 urte betetzen ditugunean amaitzen”, gogoratu du, “aspertu egiten gaitu neskalagun, ama eta amamak ordezkatzeko, istorioen parte izan nahi dugu”.

Antzeko iritzia du Urresolak: “Gizonetakoak bizitza osoa pasa dute gizadiari buruzko istorioak kontatzen, gizon zein emakumezkoenak, eta ez da inoiz zalantzan jarri euren

sinesgarritasuna. Emakumezkoak ‘emakumezkoen zinema’ soilik egiteko balio dugula dirudi”.

Bide luzea dago egiteke. Hala



Sonia Pacios Alvarez

Ekoizlea

“Badago diskriminazioa, baina ez nuke jakingo esaten zergatik”

deritzo Paciosek: “Gauza asko egin behar ditugu oraindik berdintasunera iristeko, eta orduan espero dut gaur egun horren ohikoak diren hitzak -jazarpena, erasoak eta tratutzarrak- entzuteari uztea”.

Dantza eta zuzeneko musika oholza gainean, hiru talderen ekimenez



Dantza eta zuzeneko musika uztartuko dituzte. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Indarrak batu dituzte Aiara dantza taldeak, Amurrioko musika eskolak eta Amurrioko Trititixa eskolak. Datorren otsailaren 24an Amurrioko Antzokian estreinatuko dute elkarlanean prestatu duten obra: *Pausu doinuak*. "Aiara Dantza Taldeari bururatu zitzaion ideia, eta beste bi elkartei proposamena luzatuta lanean hasi ginen", azaldu du Iraia Aspuru, "geroz eta handiagoa bihurtu

den egitasmoa izan da". Dantza taldeko kideak azaldu du "kontzertu dantzatuak" 5 eszena izango dituela eta atal horietako bakoitzak gai bat landuko duela.

"Sorpresa ugari" Eszenografiak garrantzi handia izango du taularatzean. "AD Design arduratu da elementu guztiak diseinatzeaz, eta sorpresa ugari egongo dira". Bi emanaldi eskainiko dituzte 24an: 18:00etan eta 20:30ean. Helduen sarrerak 8 euro balioko du eta haurrenak, aldiz, 5.

Orozko eta Kataluniaren arteko fusioa egingo dute Blas de Oteroren bidez

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Blas de Oterori buruzko erakusketa berezia prestatzen ari dira Orozko eta Begues -Katalunia- herriak elkarlanean. Idazlearen olerkietan inspiratutako 25 margolan bilduko ditu, artista katalan eta

bizkaitarrek eginikoak. Vallgrassa arte zentroko Jordi Aligué bultzatu du ekimena. Urte asko daramatza Orozko bisitatzen eta herriak Blas de Oterorekin zuen loturaz jabetu zenean bururatu zitzaion ekimena, eta guri proposatu zigun ideia", azaldu dute Orozkoko Museoko kideek.

Ivan Fandiñoren omenez eskultura jartzeko laguntza eskatu dute

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñarrak Ivan Fandiñoren omenaldia antolatzen ari dira. Otxomaio zezen-taldeak aditzera eman duenez, eragile ugari batu dira dinamikara dagoeneko.

Elkarlanean daude, besteak beste, Santa Zezilia musika banda, Getxa Goi txistulari taldea, Urduñako abesbatza, Parrokiako korala, Erauntsi dantza taldea, Amigos del Caballo elkarte edota Pelotazale elkarte.

Egitarauari dagokionez, egunak baino ez dituzte zehaztu:

"9 egunez kultur ekitalditan zentratuko gara. Apirilaren 28tik maiatzaren 6ra hainbat kultura eta kirol jarduerara egongo dira".

Horien artean kokatu dituzte kontzertuak, dantzak, pilota partidak, zaldi erakustaldia eta zezenketak.

Horrez gain, Ivan Fandiñoren ibilbidea gogoratzeko erakusketa atonduko dute, pilotaria eta txistularia izan baitzen, toreatzaile gisa munduan barrena aritu aurretik. Urduña ezagutzera emategatik izendatu zuten 2015eko otxomaioetako pregoilari.

Herritarrei laguntzeko deia

Otxomaio klubaren hitzetan, hainbat artistekin jarri dira harremanetan Fandiñoren irudia Urduñako toki esanguratsuren batean ipintzeko, "hiriko ondare gisa".

Proiektuaren gastuak handiak direla eta, herritarrei laguntza ekonomikoa emateko eskatu dute. Hain zuzen, bankuko korrante zenbakia jarri dute eskura, bakoitzak nahi duen ekarpena egin dezan: ES35 0182 1203 1002 0153 9639.

Ildo beretik, bi euroren truke eskumuturreko-oroigarria erosi ahalko da zenbait establezimendutan, ekimena finantzatzeko.

AIARALDEKO I. AZOKA SOZIALA

Kontsumitzen duguna gara

BIZITZEKO ALTERNATIBAK

OTSAILAK 24 - 25

AIARALDEA
EKINTZEN
FAKTORIAN

LAUDIOKO
INDUSTRIALDEA
4-8 PABILIOIA



LARUNBATA (10:30 > 21:00)
KONTSUMO ALTERNATIBAK ETA TOKIKO EKOIZLE EKOLOGIKOAK

Ekonomia sozial eraldatzaleko proiektuen aurkezpenak eta postuak: REAS, OLATUKOOP, TALAIOS, VSF Justicia Alimentaria Global, KOOP FABRIKA, FIARE, KOOP57, IZARKOM, GOIENER, BERRIZTU, EKHI TXANPONA, BATURA, LA BORDA Bartzelonako etxebizitza kooperatiba, HIRITIK AT, ORERETAKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK, TRUCAREC, OLGETA, BERTAKOIA INDARTUZ, FELIX PIKATZA
Elikadura burujabetza lantzeko proiektuak eta tokiko ekoizle ekologikoen aurkezpenak eta postuak: JANGURIE, LAUDIONEGIN, ESNETIK, Ekologikoan lan egiten duten tokiko ekoizleen postuak eta dastaketa (barazkiak, esnekiak, haragia, pasta, fruituak...) Haurrentzako jarduerak: TXEF TXIKIEN TOPAKETAK, OGI TAILERRA, JOLASAK, BAZKARIA, BIDEKO EMANALDIAK, JOLASAK, TAILERRAK, IKUSKIZUNA **MAHAINGURUA: "Eskualde baten garapena ekonomia sozial eraldatzailearen eta elikadura burujabetzaren norabidean"** BENAT IRASUEGI (Olatukoop, ekonomia eraldatzailea), MIREN PRIETO (Lakari, agroekologia) AMAIA OLEAGA (Talaio, feminismoa) **Kontzertu akustikoa, bazkaria, taberna, musika...**

IGANDEA (10:30 > 14:30)
TRUKE AZOKA ETA BERRERABILPEN ETA BIRZIKLAPEN TAILERRAK

Objektu eta denbora trukeak egiteko postu irekiak haur zein helduentzat Aldez aurretik izena eman beharra dago **Trukea bat-batean, denda librea:** Negoziazio eta merkantilizazio gabeko truke jarduerak garatzeko gune irekia **Denbora eta zerbitzu trukeak egiteko dinamikak:** Norberak dituen gaitasun eta beharretan oinarritutako denbora trukeak **Arropa birziklapen tailerra:** Arropa zaharrak berraldatu eta berrasmatzeko birziklapen tailerra **Garagardo artisaua egiteko tailer irekia:** Garagardo artisaua egiteko tailer praktikoa eta "Aiaraldea" garagardo markaren lehen ekoizpena **Egurrezko jostailuak egiteko tailerra:** Felix Pikatza arotz artisauaren eskutik, haurrei zuzendua **Energia berriztagarriak sortzeko haurrentzako tailerra** Energiaren ekoizpenerako bide alternatiboak ezagutzeko tailer praktikoa **Musika, jakiak, taberna...**

Azoka sozialean AIKOA Aiaraldekoko TXANPON SOZIALA irudikatu eta erabiliko dugu salerosketa harreman guztietan. Txanponaren balokidetasuna errenta gaitasunaren araberakoa izango da.

AIARALDEA
EKINTZEN
FAKTORIA

www.faktoria.eus

Zure egunerokoaren parte gara

CuadraBus

OFICINA CENTRAL:
Edificio CuadraBus s/n, 48100 Balmuccia (Bizkaia)
www.cuadraproject.com

T. 945 890 804
info@cuadraproject.com

ENERGIA
RNRG

CuadraBus

Kirola

“Eski ikasleen poz aurpegia da jaso dezakedan saririk onena”



VICENTE CONTRERAS (Amurrio, 1979) ESKI IRAKASLEA DA VALDEZCARAYKO ESTAZIOAN. ARGAZKILARIA DA OGIBIDEZ, BAINA BERE MENDI ZALETASUNARI HELTZeko AUKERA IKUSI ZUEN ESKI-INSTRUKTORE GISA.



Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Nola murgildu zinen eskian?

Aitarekin batera hasi nintzen eskiatzen, oso gaztetatik. 13 urte bete arte praktikatu nuen eskia eta gero snowboard-a egitera pasa nintzen. Ordurako gutxitan joaten nintzen elurretara, eta denboraren poderioz taula ere alboratu nuen.

Mendizaletasuna deskubritu nuen orduan, 22 urterekin edo. Askotan joaten ginen mendira hainbat kirol praktikatzera. Neguan jarduera ugari burutu ezin eta mendiko eskira pasa ginen. Orduan itzuli nintzen eskiaz gozatzera.

Mendi-eskian pistetan aurkitzen ez den askatasuna topatu daiteke, azken finean eski estazioetan ibiltzea nahiko monotonia baita.

Eski instruktore izaterako jauzia nolakoa izan zen?

Lagun artean mendian hainbeste ibiltzen ginenez, Valdezcarayko estazioan antolatzen ziren eski-irakasle sarbide probetara sartzea animatu ginen. Durangoko Kirolene kirol irakaskuntza eskolak antolatzen zituen frogak. Sarbide frogetara aurkeztu ginen lagun guztiok gaintu genuen azterketa beroketan kolpe bat hartu zuen kide batek izan ezik. Oinarrizko titulazioa jaso genuen Durangon bertan hurrengo urtean.

Titulazioa osatzeko Andorrara joan ginen, bertako Goi-Mendi Eskolara. Negu oso bat pasa genuen han.

Ikastaroa nahiko gogorra izan zen, oso instruktore zorrotza egokitu zitzaigulako. Orduetegi oso estuak genituen, eta exigentzia maila nabarmena zen. Etxera deitzen nuenean kezkatu egiten ziren etxeakoak, nekea nabaritzen zitzaidan ahotsean (barreak) eta!

Nola heldu zinen Valdezcarayko eski-estaziora?

Andorrako Goi-Mendi Eskolan titulazioa eskuratu ostean praktikak egitea zegokigun. Segituan jo genuen Valdezcarayra, etxetik gertu geneukalako eta sarbide froga bertan egin genuelako. Onartu gintuzten, eta negu guztia pasa genuen bertan.

Nolakoa da eski-instruktore baten lana?

Nik EDIV eskolan egiten dut lan, Vadezcaray-ko neguko kirolen eskolan. 51 irakasle gaude guztira, batzuek aste barruan egiten dute lan eta gainontzekook asteburutan. Egunero, lehenengo orduan, lana banatzen dugu instruktoreen artean, guztiok ordu batzuk lan egiteko aukera izan dezagun, bertarainoko bidaia amortizatzen haina.

Bezeroak heltzen direnean elkarrizketa txiki bat izaten dugu beraiekin, euren ezagutza neurtzeko eta klase orduak planifikatzeko. Horren arabera pista batera edo beste batera mugitzen gara. Zailtasun handienak taldeei ikastaroak ematerako orduan daude, askotan erritmo desberdinak dituelako jendeak. Klase partikularrak askoz errazagoak eta eramangarriagoak dira errekurso ugari baititugu ikaslea jaisten laguntzeko eta gidatzeko.

Zer da lan honek duen gauzarik erakargarriena?

Ikasleen poz aurpegia da jaso dezakedan saririk onena. Asko disfrutatzen dut jendea laguntzen eta hauengarapena ikusten, asebetetzen nau. Normalean azkar ikasten dute, eta bi orduko bi saiotan estazioko pista guztiari aurre egiteko gai dira, inongo problemarik gabe. Badira ere, saiatu arren, aurrerapausorik emateko gai ez diren ikasleak, elurretan ibiltzeko ere zailtasunak dituztenak. Izaten dira ordu frustragarriak, baina orokorrean ez dira ohikoak.

Nekagarria ere bada askotan, zazpi edo zortzi orduz

jarraian talde ezberdinei irakasten egotea. Orain, negu hasieran egunak motzegiak dira oraindik, baina argi orduak luzatu orduko, lana bukatu eta mendi-eskia praktikatzeko. Valdezcaray inguruko mendiak oso aproposak dira horretarako, eta estaziotik kanpo ez duzu inor aurkitzen. Gozagarria da oso.

Zer da eski-irakasle bezala ikusi duzun gauzarik bitxiena?

Askotarikoak bizitzen ditugu. Behin Kanariar Uhartetatik etorri zitzaigun talde bat, ez zuten elurra inoiz ikusia. Zoragarria zen haien harridura aurpegia. Segituan hartu zioten neurria eskiari, eta azken egunerako bikain moldatzen ziren.

Beste batean emakume bat etorri zitzaidan klasea hasi aurretik mendiko boten lokarriak lotzeko eskatuz, normalean bere senarrak lotzen zizkiolako. Zur eta lur geratu nintzen!

Gazteei ere irakasten diezu?

Bai, goizetan ikastetxeetako txango ugari izaten ditugu. Umeei oso azkar ikasten dute, baina pazientzia gutxiokoa dira. Lehenengo momentutik daude pista malkartsuetara edo jauziak egitera joan nahiean, eskiak nola jarri ikasi aurretik! Une batez erlaxatuz gero, segituan daude mendi puntatik abiada bizian behera! (barreak)

Hala ere, nik argi daukat: umeei ondo pasa behar dute, bestela ordu guzti horiek ez dira probetxuzkoak izaten eta.

Eski-irakasle izatetik ba al dago bizitzerik?

Ez baduzu eski denboraldi guztia estazioan igarotzen ez, hori argi dago. Nik nire afizioa merke ateratzeko modu bezala ikusten dut, ezingo nintzateke bizi klaseak ematek ateratzen dudun diruarekin. Ni argazkilaria naiz ogibidez.

TXIRRINDULARITZA

Munduko ziklokros proban 31. sailkatu da Luisa Ibarrola

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Otsailaren 3an izan zen Limburgen Munduko Ziklokros Txapelketa. Luisa Ibarrolarentzat denboraldi osoan egindako lanaren uzta izanda mundu mailan indarrak neurtzeko aukera izatea, hala Euskadiko nola Espainiako zirkuituak irabazi baititu.

Norgehiagokari dagokionez, lasterketak aurrera egin ahala indartsuago sentitu zela adierazi du Ibarrolak. Azken itzulian, baina, matxura

izan zuen: "Bizikletak zuen apurrarekin eman dut azken itzuli erdia, aldatzeko aukera izan dudana arte".

Balorazio gazi-gozoa

Aurreneko aldia izan du saratxoarrak munduko lasterketan. Egindakoarekin gazi-gozo itzuli da, probaren osteko adierazpenetan aipatu duenez: "Batetik pozik nago, bestetik ez. Gutxitik gehiagora jo izanarekin geratzen naiz. Lasterketa honetan hutsuneak akats bihurtzen dira, eta karrera osoan nabaritzen da hori".

TXIRRINDULARITZA

Manuel Hidalgo Nuñez izan da Euskadiko pisu jaurtiketan txapeladunordea

Manuel Hidalgo Anoetan eskuratutako dominarekin. M.H.N

Testua
Aitor Aspuru Saez

Bigarren postua eskuratu du Manuel Hidalgo Nuñezek Euskadiko Pisu Jaurtiketa Txapelketan. Ekainean

Espainiakotxapelketanlehiatuko da Gasteizen, Mendizorrotzan, hain zuzen. Amurriorearren asmoa da munduko txapelketan ere parte hartzea, irailean. Izan ere, 2006an Malagakoan egon

IRRISTAKETA

Lautxirrinka klubeko kideek 4 domina eskuratu dituzte Espainia mailako proban

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Lautxirrinka Patin Klubeko kirolariak lau domina eskuratu dituzte Barakaldon jokaturako lehiaketan. Espainiako proba izan zen, eta aiaraldearek fin defendatu zuten euren abilezia. Emaitzak dira horren adierazle: Laia Torrek eta Nahia Berganzak urrezko domina jaso zuten, Izaro Etxebarrak zilarrezkoa eta Sara Castrillok brontzezkoa.

Barakaldon izan zen norgehiagoka, eta 30 bat irristatzaile joan ziren Laudiotik txapelketara. Espainiako lehiaketa izaki, kirolari ugari batu ziren hitzorduan. "175 patinatzailek parte hartu zuten guztira. Nafarroatik, Kantabriatik, Gaztela-Leoitik... etorri zen jendea", adierazi du Marimar Salazar klubeko lehendakariak.

Gurutzetapatintaldeaarduratu zen antolakuntzaz. "Irristaketa Artistikoaren IX. Txapelketa Nazionala izan zen. Klub ezberdinetako kideak elkartzen garelako hartzen du izen hori, baina ez da Espainiakotxapelketa".



Lautxirrinka taldeko kideak, Barakaldoko proban. Lautxirrinka

Espainiako txapelketarako txartela, Euskadiko txapelketan eskuratu behar da: "Horretarako federatuta egon behar da; eta gu, eskola kirolean aritzen gara batez ere". Zehaztu duenez, Laudio taldetik bi patinatzaile soilik daude federatuta, "maiatzean joango dira Euskadiko txapelketara".

Emaitzarekin pozik

Lehendakaria pozik agertu da emaitzarekin: "5 eta 15 urte arteko neska-mutilak

eraman genituen txapelketara". Arabako talde bakarra direnez, Bizkaikoekin lehiatzen dira. Probari dagokionez, bi minutuko abesti batekin patinatu behar izan zutela azaldu du. "Gazteekin maila zehazteko 'paseak' eta txapelketak egiten dira", zehaztu du. Martxoan izango dute hurrengo erronka, Gardeako frontoian prestatuko baitute maila-proba. "Irristaketa probak egiteko leku falta dago oro har, jende askorentzako tokia egon behar baita".

ATLETISMOA

Espainiako Kros Txapelketerako sailkatzea lortu dute Laudio Atletismo Klubeko emakumeek

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Amurrioren egin zen igandean Euskadiko Kros Txapelketa. Fin aritu ziren Laudio Atletismo Klubeko emakumeak eta

otsailaren 25ean Gijonen jokaturako den Espainiako txapelketerako pasea lortu zuten. 19 korrikalari sailkatu dira guztira: sei 16 urtetik beherakoan kategorian, zortzi 18 urtetik beherakoan eta bost 20 urte baino gutxiagoan.

BORROKA

Eskualdeko borrokalariak fin, Bañuetan

Ehunka lagun elkartu ziren larunbatean Bañueta kiroldegian borrokaldia ikusteko. Eskualdeko 5 kirolari ringera igo diren arren, Dani Tojok eta Ibai Ruizek bakarrik eskuratu dituzte garaipenak.

HOTEL ORDUÑA PLAZA

Balneario

Zatoz gure instalazio eta zerbitzu berriak ezagutzera

Foru plaza, Urduña hotelordunaplaza@gmail.com



Ostatua
Jatetxea
Bainuetxea
Gimnasioa
Ekitaldien antolakuntza
Ezkontzak, koktelak,
menuak...

arrate
gestoria • aholkularitza • aseguruak

Zuengandik hurbil

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Herriko plaza



Aimar

Zorionak aiaraldeko geologo sexiari!! Segi ametsak betetzen!!

Zure jarraitzaile sutsu bat



Yanai

Zorionak laztana, 4 urte! Ondo pasa zure egunean amatxuren partez!

Ama



Ane

Zorionak Aneeee! 26 belarri-tirakada zuretzat! Ondo pasa eta egongo gara!

Lagunak



Mari

Zorionak Mari!!! Oso ondo pasa zure urtebetetzean eta muxu pilo zuretzat!


Pim, pam, pum



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera otsailaren 22a baino lehen.

Denborapasak

	Amaren ama	Nafarroako ibarra	Adabaki	DEITURA
	Sonarraren ezkontidea	Edo	Interjekzioa	
	IZENA			
	Txinpartak			
Tripak	Presoen aldeko talde	Bokala	Elkartu	
Ez estu, nasai	Gora ez, bestela	Estekatuak	Musika nota	
		Egile atzizkia	Atzizki bikigarrria	
		Gurtu aditzaren oina	Afrikako estatua	
Beretzeko tresna				Toka, naitz
Argaldu		Bat gehi bat	Nitrogenoa	
		Suari dariona	Bizkaieraz, etc	
Lerroaren hasieran	Urkatzeko tresna			
Kisua	Omen			
		Gaixotu		
		Urania		
Ergela			'Korrika' antolatzen du	

❖ Futbolari urduñarra

ERRAZA

		2	8	5		4	6	
			3				7	
4	7	5	6	9		2	8	3
	6		2	4	3	8	9	
				7	8		3	
					9	7	5	
7	5				6	3	2	8
	2	8	7	3			6	
6	3		4	8		5		

				2		6	
2	3	4	7	9	6		
	7			5	2		
	5	7	2				
			6	8	4	3	5
			9				2
3			4	8		6	9
8							
6		1	9	3	8	4	

ZAILA

	9	4	5				8
3	1	5	4				
	2	6	3		1		9
						5	1
2			7			9	6
4				1			7
	7						9
	6		9	3			2
9						6	

1				7	8	6	
	7			8		1	
8		2					9
							2
4			1				
	9			5			
6	8						
			5		9		
				9	3	4	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Eskelak



Argitaratu Aiaraldea Egunkarian eta webgunean nahi duzun eskela edo agur mezua.


**Urteurrenak
Oroigarriak
Esker-onak
Eskelak**

Informatu eskelak@aiaraldea.eus-en

FUNERARIA
L A R R A Z
EHORZTETXEA

Zozketa

“PAUSO DOINUAK” ikuskizunerako sarrera bikoitza



Aiaraldea hedabideak Amurrio Antzokian izango den “Pauso doinuak” ikuskizunerako sarrera bikoitza bat zozketatuko du. **Zozketa data: otsailak 23, 12:00etan www.aiaraldea.eus web atarian.**

Maite dituzu benetako gauzak?
Iraunkortasunaren alde egiten duzu?
Natura errespetatzen duzu?
Produktu freskoak bilatzen dituzu?
Gogoko duzu bestelako moda?

Eros ezazu singularrean.



**Pentsa ezazu pluralean.
Eros ezazu singularrean.**

→ **arabahemengo shopping.eus**




▶ Arabako Foru Aldundia
▶ Diputación Foral de Álava

*Araba da erronka
El reto es Álava*


Aiaraldea txiki

Osatu

Erdizka margotuta dauden zazpi irudi hauetatik hiru elkartzuz gero, etxea behar bezala osatuko duzu. Batura horretan elementuek (kea, teilatua, atea...) behin bakarrik agertu behar dute koloreztatuta. Har ezazu kolore zuria gardena balitz bezala.





Emaitzak



ZINEMAN. Bi irudien artean dauden aldeak: 21



ZINEMAN. Antza denez, zinema honetan ematen ari diren filma ez da aski interesgarria, inork ez baitio begiratzen.... Baina, tira. Begi-bistakoena alde batera utzita, zenbat ezberdintasun ikusten dituzu bi irudi hauen artean, 7, 9, 17...? Zenbat?




Gogoa non...

Jarraian zer datorren asmatzen baduzu, esaera zahar ezagun bat osatuko duzu.

- Gogoa non, begiak zoro eta bihotza edonon.
- Gogoa non, zu beti bertan.
- Gogoa non, lagunik ezin aurkitu inon.
- Gogoa non, normalki Amoroton.
- Gogoa non, poza beti da on.
- Gogoa non, lanak hor konpon.
- Gogoa non, zangoa han.

Itzala

Zein da karramarro honi dagokion itzala? Bakarra da zuzena.



Gogoa non, zangoa h
 Gogoa non, lanak hor
 Gogoa non, poza bet
 Gogoa non, normalki
 Gogoa non, lagunik e
 Gogoa non, zu beti b
 Gogoa non, begiak z
 Gogoa non, bihotza e

Gogoa non



Kontra

Mundutik Aiaraleara

John Skodak



Ana Paula Vieiras

JAIOTERRIA
BRASIL (1981)

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA
LANA

BRASIL



DESKRIBAPENA

Hegoamerikako herrialderik handiena da. 1822. urtean independizatu zen Portugaletik. 2015. urtetik darama krisi ekonomikoan murgilduta eta egun krisi politiko larria pairatzen ari da baita ere. Urriaren egingo dira hauteskundeak.

AZALERA

8.515.770 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

208 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Portuguesa.

BITXIKERIAK

Herrialdearen 3,6 milioi kilometro koadro baso amazonikoek osatzen dute.

“Bizitza komunitarioa hemen baino garatuagoa dago Brasilen”

Brasilgoa zara jatorriz. Nola heldu zinen Laudiora?

Rio de Janeiron jaio nintzen ni. 2004an joan nintzen Brasiletik. Hara eta hona ibili nintzen Euskal Herrira heldu aurretik. Galizian izan nintzen hasieran eta bertatik Kantabriara mugitu nintzen, bertan ezagutu nuen nire senarra.

Duela zazpi urte heldu nintzen Laudiora. Hasieran etxeak garbitzen egiten nuen lan. Tren geltokiko taberna kudeatzeko aukera sortu zitzaidan eta ordutik hemen nago, oso pozik nago aldaketarekin.

Alde handia dago Euskal Herriaren eta Brasilen artean?

Badago bai! Agerikoena klima, Brasil askoz epelago eta atseginagoa da.

Bestetik, eta niri gehien harritu nauena, jendearen izaera da. Brasildarrak askoz alaiagoak dira. Ez hori bakarrik,

humanoagoak ere badira bertan, gehiago kezkatzen dira ingurukoez. Bizitza komunitario garatuago bat dago bertan.

Oso gizarte indibidualistarekin topatu naiz hemen, bakoitza bere burbuilan bizi da eta ez dio axola ondokoari zer gertatzen zaion. Leku batetik bestera presaz eta korrika dabil jendea, ez du bere burua edota ingurukoena zaintzeko astirik hartzen.

Zuretzat pertsonalki ere jauzia handia izango zen.

Egia esanda, lagunek beti esaten didate ni ez naizela brasildar arrunt bat: ez zait samba gustatzen, ezta jai-giroan kalera ateratzea. Zentzu horretan ez dut kulturalki alde handirik nabaritu nire azalean. Arreta deitu didate herriko jaiak, eta gogoak ditut nire semea festetako jantziak jantzeko.

Gastronomikoki bai bizi izan

dudala jauzi izugarria. Faltan botatzen ditut Brasileko jaki tipiko asko. Hemengo jaki askorekin ere izan dut borroka.

Oroitzen naiz hona lehendabizikoz heldu nintzanean patata tortilla ez nuela batere gogoko, arrautza gordinak nazka ematen zidan. Orain kafetegian lan egiten dudala egunero prestatzen ditut tortillak eta ikaragarri gustatzen zaizkit.

Nolako a dabarrabatenatzean lan egitea?

Egia da jardun publiko bat izanik kritikak jasotzea oso ohikoa dela. Jendeak pila bat kritikatzan du, orokorrean, gauza eta ekintza guztiak epaitzen dituzte hemen. Nik pertsonalki oso pozik lan egiten dut tabernan. Lana eskuratu arte ez nuen inoiz taberna batean lan egin eta egun erraztasun osoz moldatzen naiz.

Tren geltokiko kafetegia izanik bezeroak nahiko fidelak dira, egunero dator jende konkretu bat eta oso harreman polita egin dut jendearekin, baita tren-geltokiko gainontzeko langileekin ere.

Nola irudikatzen duzu zure etorkizuna? Brasilerantz itzultzea aurreikusten duzu?

Ez dut horren inguruan asko pentsatu. Oso pozik nago kafetegian lanean. Ez dut inondik ere Brasilerantz bueltatzeko asmorik, jada ez nau ezerk lotzen bertara. Brasilen geratzen zaidan bakarra gaztaroko oroitzapenak dira.

Familia bertan banu planteatuko nuke, ezagun asko itzultzen dirasorterrira, bainanik familia Euskal Herrian daukat: seme-alabak, bikotekidea... Senarra Kantabriako izanik aukerak ditugu inoiz bertara itzultzeko, nork daki.

EL GUNKARITIAU AGUNTZI N DUTII:

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA